

musika

anje duhalde

bidaia

lisboa

arte

periscopio erakusketa
mauro entrialgo

gaiak

stop tortura. unai romano
karakorum espedizioa 06
kike amonarriz. mihiluze

QEU

2,40 €

2006ko azaroa

167

iruña-veleia eliseo gil



ezker independenttea



EZINBESTEKOA

EZKER

ABERTZALE

BERRI BAT

ERATZEKO




aralar

ezker independentista

www.aralar.net

araba@aralar.net

945 252631



50 Jakin, GURE
URTE KULTURAREN
ALDIZKARIA

Jakin

haizea dakiten orriak

Harpidetuz gero eta oparia jasoko duzu
deitu: 943 218092

Idatzi: jakin@jakingunea.com

Ikusi: www.jakingunea.com

Harpidetza: 6 zenbaki 45 euro

Oparia: 50 urteotako 202 zenbakiak DVD batean

SUMARIOA167




GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua | **erredakzioa:** Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | **tfnoa. eta faxa:** 945 22 21 53 | **e-mail:** geugaste@grn.es | **www.geugasteiz.com** | **zuzendaria:** estibx breñas glz. de zarate | **aldizkariako batzordea:** david alvez, edurne begiristain, josune veleiz de mendizabal, edorta sanz eta estibx breñas | **kazetariak:** josune veleiz de mendizabal, edurne begiristain, maite lekue, saioa fdz de arangiz, ainhoa arriaga eta narroa cuesta | **azaleko argazkia:** edorta sanz | **argazkiak:** edorta sanz | **bestelako irudiak-bilaketa:** estibx breñas glz. de zarate, david alvez | **testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:** estibx breñas glz. de zarate | **itzulpenak:** edurne begiristain, estibx breñas, aztiri | **maketa:** dalvez | **umorea:** inigo sarasola | **kolaboratzaileak ale honetan:** kike fdz. de pinedo, ludger mees, joxean sagastizabal, txabi arnal, erlantz urtasun, cristina fernandez eta diocesanas-mendizorrotzak ostaralritza eskola | **publizitatea:** geu aldizkaria | **sustapen-harpidetza saila:** geu aldizkaria | **harpidetza-publizitate laguntzaileak:** edurne begiristain | **inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubiillaga, Oñati) | **lg:VI-582/92** | **issn:** 1133-0988 | **Frankeo Itundua 48/27 zenb.** | aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:

zeregin	4
azaroko agenda	
iritzia	7
gutun irekia miguel sanz presidenteari	
geugaia	9
iruña-veleia. eliseo gil	
euskaltasunean. gasteiz	15
julene hird radotic	
kaletik / idazleenzutabea	16
musikazaletasuna / joxean sagastizabal	
lauhitzetan	17
los del gas / neubat / toloño...	
geupertsonaia	19
anje duhalde: sorminetan	
artetxokoa I	23
periscopio erakusketa. gasteiz	
proposamenak/haur&gazte literatura	27
cd-a&liburua&zinea& komikia	
artetxokoa II	28
mauro entrialgo	
batbitan	30
karakorum espedizio arabarra 06	
batbitan	32
stop tortura. unai romano	
batbitan	34
kike amonarriz. mihiluze saioa	
bidaia / errezeta	36
lisboa iruditan / hegaluzea	
umorea	37
inigo sarasola	
arababixotzian / historiazutabea	38
cristina fernandez / erlantz urtasun	



■ vitoria-gasteizko nazioarteko XXXI. antzerki jaialdia

azaroaren 25a bitartera. sarrerak: principal antzokiko leihatilan telefonoz (945161045)
www.vitoria-gasteiz.org

william shakespearearen 'the tempest' (ekaitza)

zecora ura theatre (britainia handia)

ezaugarri berezia: lau hizkuntza desberdinen fusioa da (gaztelania, portugesa, euskara eta ingelesa)

azaroak 9, jesus ibañez de matauko antzokian, 20:30

■ arabako campuseko kultur hedakuntza

unibertsitate pabilioian, 19:15ean, doan (eserlekua bete arte):

>azaroak 8: atomoog: gasteizko talde honek beraien 'zerutik eskegita' diskoko elektronika, trip-hop eta rock doinuak eta zuzeneko irudiak aurkeztuko dizkigu
>azaroak 23, mikelazulo kultur elkarte, 'erloju lehorrak': poesia, narrazioak, musika eta pintura emanaldi bitxia
>azaroaren 14-24: 'argi eta garbi: emakumeok hitz egiten dugu' erakusketa, círculo solidario euskadi-ren eskutik.

inaugurazioa: azaroak 14, 19:00etan, unibertsitate pabilioian



■ artium-eko 2006-07 eskolarako programak:

zein hizkuntzatan hitz egin nahi duzu artiumeko bisitaldian? artium-eko eskolarako programa guztiak 4 hizkuntzatan egin daitezke, ikasleak ikasten ari diren hizkuntza erabili ahal izateko: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa
zurre neurria (gasteizko ikasleei eskainia): prestakuntza saioa ikastetxean (ordubete) / artium bisitatzea (2 ordu) / jarraipenerako bisitaldia ikastetxean (ordubete)
parte hartzeko bisitaldi gidatuak (ordubete)

bisitaldi-lantegiak (2 ordu)

loturak (3 ordu)

programa berriak:

- loturak +
- bil ezazu informazioa! hurbil zaitez eta araka ezazu liburutegia (2 ordu) artearen eta ikus-entzunezkoen inguruko hezkuntza dlh-ko 1. mailatik
- 6. mailarainoko ikasleentzat

irakasleentzako prestakuntza saioak

on-line baliabideak: www.artium.org/educacion.html / 945209010 / educacion@artium.org

■ erakusketak artium museoan

>>hannah wilke. exchange values (2007ko urtarrilaren 14a arte)

>>eugenio ampudia ...ideia barren-jale bat baizik ez (2007ko otsailaren 18a arte)

>>katarsia. garbikuntza errituak (2007ko martxoaren 4a arte)

ordutegia: >>11.00etatik 20.00etara / ostiralak eta larunbatak: 11.00etatik 20.30era / jaiegun ez diren astelehenak: itxita / txartel-lehiatila museoa itxi baino ordu erdi lehenago arte dago zabalik

>>erakusketen doako bisitaldi gidatuak: asteazkenero (11.30ean eta 18.00etan), larunbatero (11.30ean eta 18.00etan) eta igandero (11.30ean eta 12.30ean)

>hitzaldi zikloa

>>katarsia. garbikuntza errituak: karra elejalde aktorea. azaroak 15, asteazkena, 20:00

bisitaldi gidatuak artiumen euskaraz igandero 11:30ean 945209010

www.artium.org

■ euskara ikasteko diru-laguntzak

>gasteizko udalaren euskara biziberritzeko plan nagusia (ebpn). berritasunak: diru-laguntza lerro berriak gurasoentzat eta haurrekin lan egiten duten begiraleentzat oinarriak: alhao-n (botha) / www.vitoria-gasteiz.org

■ emakumezko & gizonezkoen arteko berdintasunerako jarduerak

>emakumea: ezagutu zure gorputza, zure desioak aldabe G.E. (gasteiz), 06-11-06 / 06-12-11 (astelehen & asteazkenetan), 19:00-21:00

>emakumezkoentzako autodefentsa abetxuko polikiroldegian (gasteiz), 06-11-13 / 06-11-17 (astelehenetik ostiralera), 19:00-21:00

*izena-ematea: epea jarduera bakoitza hasi baino astebete lehenago bukatuko da. edozein gizarte etxetan zein internet bidez egin daiteke

www.vitoria-gasteiz.org

■ bisitaldi gidatua: gasteizko santa maria katedrala

>azaroak 23, 18:30ean

izena eman behar da aurretik honako gizarte etxe hauetan: aldabe,

judimendi, hegoalde, pilar, lakua edo iparralde gizarte etxeetan,

azaroaren 16tik bisitaren aurreko eguneko 14:00ak arte.

prezioa: dohainik.

gasteizko udaleko kultura saila

www.vitoria-gasteiz.org

■ bisita gidatuak montehermoso kulturunean

>eraikina & erakusketak

alde aurretik hitzartuz 945161830 tfk zk.n

■ aisia euskaraz bizi jardunaldiak

>euskararen normalizaziorako gaiak duen garrantzia aintzat harturik, haur eta gaztetxoaren artean euskararen erabilera sustatzearren aisia tresna eta metodo gisa aurkeztuko da jardunaldiotan

azaroak 23, durangoko landako guneko elkartegian

www.topagunea.org/jardunaldiak

■ beste ekintza batzuk:

> gasteizko euskharan elkarte: amaia zentroa, isunzatarren kalea, 10 / 945288275

> gasteizko alde zaharreko parral taberna (kontzertuak eta beste)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa

■ kontzertuak

kerobia

>disco berriaren aurkezpena: 'rose eskargot'
azaroak 9. gasteizko gaztetxean. ordua
zehazteke
www.kerobia.com / www.gordiscos.com

bide ertzean

>'non dira' disko berria aurkezten
azaroak 9, osteguna. gasteizko gaztetxean.
21:30ean

fermin muguruza & dam & bad sound system & la banda del surdo

>18/98+ taldeak antolatuta
bec-barakaldo / 06-11-11 / 20:00
sarrera: 18,98 euro (a.a)+banaketa gastuak
/ 23,98 euro (t)
internetzez erosteko: www.ticktackticket

tomas san miguel

>dan-txa diskoaren aurkezpena aguraingo
harresi aretoan
azaroak 18, 20:00etan

■ gauekoak

>ezeziel antzezlanak

azaroak 3, 21:00etan, aldabe gizarte etxeko antzokian
sarrera: 6 euro, 3 euro 30 urte edo gutxiago
dutenentzat, eta dohainik xtraclub txartela duten
nerabeentzat

>r&r monologoak

azaroak 24, 21.00etan, aldabe gizarte etxeko antzokian
sarrera: 6/3/doan

>malatu taldearen jazz saioa

abenduak 2, 21.00etan, aldabe gizarte etxeko
antzokian. sarrera: 6/3/doan

>betagarri taldearen kontzertua

abenduak 16, 21.00etan, azkena aretoan
sarrera: 12 euro eta 6 euro 30 urte edo gutxiago
dutenentzat

>tailerrak: fimo, ipuinak idazteko hastapenak...
www.gauekoak.es



■ haurrentzako antzerkia & ipuinak

◆ antzerkia: bob, nor da bob?

>ostegunak zuzenean programa. azaroak 2,
20:00etan, jardin de falerina kafetegian (gasteizko
montehermoso kulturunean). doan

◆ ipuin kontalaria: behi bi's, 'marilo betilo'

>larunbatetan familia osoa programa. azaroak
11, 18:30ean, jardin de falerina kafetegian
(gasteizko montehermoso kulturunean). sarrerak:
euro 1, aurreko larunbatetik salgai

◆ haur antzerkia: kukubiltxo, 'kukubel'

azaroak 19, aguraingo harresi aretoan, 17:30ean

◆ txoroleku: familientzako arte eszenikoak

espektakuluaren mundura hurbiltzeko aukera
paregabea izango da urria eta abendua bitarteko
igandeetan, txoroleku programak hainbat
estilotako antzezlanak eskainiko baititu: pailazoak,

ipuin-kontalariak, txotxongiloak..., haurrak eta
haien familiak harritzeko eta dibertitzeko xedeaz.
>sarreraren salmenta: goiuri jauregia (emanaldiaren
asteko astelehenetik ostiralera, 16:00etatik
20:00etara); prezioa: 2 euro. txoroleku gunearen
helbidea: gasteizko florida parkean (garai batean
eusko jaurlaritzaren turismo bulegoa)
argibide gehiago: www.vitoria-gasteiz.org

>azaroak 5, 11:30

gorakada: 'titirikontu-kontari'

>azaroak 12, 11:30 / 12:30

teloncillo: 'muuu... las cosas de celia' ['muuu... celiaren gauzak] (testu gabe)

>azaroak 19, 11:30

monda & lironda pailazoak: 'dinosaurio egitasmoa'

◆ kinkurankin antzerki-gogoia: 'amets galery'

arregula eta perregula munduko surf
txapelketaren bila dabilta. Salto, txiribuelta, abesti
eta ipuin, abentura bila kinkurankin... bidetik,
asmatzen dituzten jolas eta sorginkeriek ametsen
lurraldearaino eramango dituzte".

zigoitia aretoan, azaroak 25, 19:00etan

■ gora taberna (gasteiz-alde zaharra)

asteartea 31: kike dj (rock&roll, hegotarra)
ostirala 3: txarly: 2005-2006 diskoak. intern.
eherrria

igandea 5: 20:30h: kontzertua: cruce de
cables: alejandro martinez & jose luis

manzanedo (murcia)

ostirala 10: dani freaks electro house xferà-koa

ostirala 16: 20:30h: kontzertua: borja estankona,
'tarteana' (arean taldearen abeslari ohia)+
mundina dj (rocka, punka, javia eta bestelako
kakak, gaur egungo gazteriar gustatzen ez
zaizkionak)

ostirala 17: kår djshola: elektronika (hip hop
joera berriak)

osteguna 23: 20:30h: kontzertua: napoka iria
+ hot&ready dj (rock&roll)

ostirala 24: mombasa -afrocosmicgrooves-
mariñela cafekoa (ziburu), brankan paratu
du (donostia)

◆ gasteizko kultur etxea: 'hurbildu itzazu ipuinetara' programa

4-7 urte arteko haurrentzako irakurtzera bultzatzeko
programa

>ipuinak beste azentotan programa (ostiralak)

azaroak 17: oihulari klown

abenduak 1: iñaki carretero & uxue zapata
(flauta)

18:00etan. sarrera doan

>txikiak liburutegira: liburuekin jolastera programa
(larunbatak)

aurretik asteen zehar izena eman behar da (20
plaza gehienez)

azaroak 4: 'dordokaren sekretua' ipuina (jarduera: entzun)

azaroak 11: 'sekulako oparia' (jarduera: bilatu)

azaroak 18: 'amonaren etxera noa' (jarduera:
kontatu)

azaroak 25: 'zabuetan' (jarduera: asmatu)

abenduak 2: 'hondartzako gazteluaren ipuina'
(jarduera: jolastu)

ignacio aldekoa kultur etxeko haur aretoan
946181944 / ccuinfantil@alava.net

GEU

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa

■ kultur errota. filma & hitzaldia:

'zeru horiek' & bernardo atxaga & aizpea goenaga

>literaturatik zinemarako bidaia oinarri, 'zeru horiek' pelikularen aurkezpena izango da montehermoso kulturunean. ondoren, bernardo atxaga eleberraren idazlearekin eta aizpea goenaga pelikularen zuzendariarekin solasaldia izango da bertan.

filmaren laburpena

irene, etako kide izandakoa, kartzelatik atera da amnistia baten ondorioz. bartzelonako kaleetan zehar noraezean ibili ondoren, bilbora itzultzea erabakitzen du. itzulerako bidea berarentzat bere bizitzarako itzulera izango da. autobusean moja batzuen presentziak iraganeko mamuak uxatzen eta askatasunerako borrokaldiari ekiten laguntzen dio.

eguna: azaroaren 15a

lekua: montehermoso kulturunea

ordua: 18:30ean



■ kultur errota. kontzertua: eorann taldea

>eorann musika taldearen kontzertua. maketa bat eta aurten euren lehen diskoa kaleratu dute. bost urte dira birkite gasteiztarrek musikan aritzeko zuen gogoaren ondorioz taldea sortu zela.

eguna: azaroaren 28a

lekua: parral taberna

ordua: 20:30ean



■ kultur errota. hitzaldia:

>jose felix diaz de tuestak (gasteiz, 1963) 'euskal herria atzeritarren ahotan' liburua aurkeztuko du. estrabonek, cervantesek, lope de vegak, shakespearek, victor hugok eta beste hainbat pertsonaia ezagunek euskal herriaz diotena jaso du idazle arabarrak (ikus. geu aldizkaria, 163. zk /2006-uztaila).

eguna: azaroaren 8a

lekua: hikaateneoa

ordua: 20:00etan



■ geurekin mendira:

>mendizale taldeak beruete eta aldatz herrien arteko ireberreko (1.204m) tontorra bisitatuko du oraingoan.

eguna: azaroaren 19an

lekua: lovaina plaza

ordua: 9:00etan

arduraduna: bego 945266812

■ literatur kluba:

>oskar aranak euskaratutako paul auster idazlearen 'brooklyngo erokeriak' (alberdania, 2006) izango da irakurle klubeko hizketagai. eleberririk distiratsua da, etsipena maitasun bihurtzen dakiena, argia, bizkorra, barre eragile sotila; gauzatzen diren eta zapusten diren ametsen gainean diharduena.

dinamizatzailea: iban zaldia

eguna: azaroaren 29a

lekua: hikaateneoa

ordua: 20:00etan

abenduan mintzagai izango den liburua: juan luis zabala, 'galdu arte', susa 1996



GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA

[ludger mees] (2006-10-16 / erabili.com)

GUTUN IREKIA MIGUEL SANZ PRESIDENTEARI

Sanz jauna:

Azken urteotan euskararen gainean egin dituzun adierazpen asko entzun eta irakurri ditut. Interesez jarraitu ditut, halaber, zure gobernuak Nafarroako hizkuntza politikaren arloetan hartu dituen erabakiak.

Behin baino gehiagotan harritu eta txunditu naizen arren, nahiz eta ezin dudan ulertu -ez bada filia eta fobia ideologikoen ondorio diren arrazoiak jota- nola erakuts dezakeen gobernu batek hain errespetu txikia, mesprezu irekia ez esatearren, bere kultur ondarearekiko eta ordezkatu behar duen gizarteko sektore garrantzitsu batekiko, inoiz ez dut eman ezagutzera nire iritzia jendaurrean. Beti pentsatu izan dut zuk legitimitate osoa daukazula esaten duzuna esateko eta egiten duzuna egiteko, nafarrek eman baitizute legitimitate hori hautestontzietan; eta nafar horiek kenduko dizute, hori bada gehiengoaren nahia. Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den nire moduko herritar batek errespetatu egin behar du nafarren gehiengoaren borondatea eta isilik egon behar du, jendaurrean behintzat. Horrela izan behar du.

Baina egoera aldatu egin da erabat unibertsitate elebidun baten gainean egin berri dituzun adierazpenen ostean, adierazpenok zuzenean eragiten baitiote Euskarako errektoreorde gisa ohorez ordezkatzeko duen Euskal Herriko Unibertsitateari. Oraingoan ez diet erantzungo Parlamentuan berriki egin dituzun adierazpenei; esate baterako, administrazioko lanpostuak betetzeko lehiaketa publikoetan euskara meritu moduan baloratzeari eman diotuzun ezetz biribilari. Euskal Herriko Unibertsitatean min handiena eman diguten bi adierazpenak baino ez ditut izango mintzagai, eta euskaraz ikasten duten 17.000 ikasleren ordezkari moduan mintzatuko naitzaizu -horietatik milaka nafarrak-, eskolak euskaraz eman eta ikerlanak eta idatzia euskaraz egiten dituzten 1.150 irakasleren izenean, eta hizkuntza eskakizunak gainditzeko eta modu horretara zerbitzua euskaraz emateko ahalegina egin duten administrazio eta zerbitzuetako 800 langileren ordezkartzan.

Zure lehenengo adierazpenari erantzunik emateke gera ninteke, pentsatuta politikari trebe baten irtenbidea izan dela, arazo bat gainetik kentzeko. Ele biko unibertsitate publikoa «ez litzateke bideragarria ekonomiaren ikuspuntutik». Ez dago dirurik eta, beraz, ezin da egin. Hala ere, zuk jakin beharko zenuke, nik bezain ongi edo hobeto, aurrekontu publikoak erabaki politikoei jarraiki osatzen direla. Euskal Autonomia Erkidegoan, agintari politikoei eta unibertsitateko agintariei erabaki genuen dirua egon behar zela ele biko unibertsitate publikoa lortzeko. Bide horretan aurrera egin dugu nabarmen nahiz eta, egia esan, UPV/EHuren arduradun gisa beharrezkotzat ikusten ditugun baliabideak eta abiadura ez ditugun izan beti bidaide. Baina hortxe ditugu emaitzak: irakasgaien %70 inguru bi hizkuntzetan eskaintzen dira; ikasleen ia %35ek euskaraz ikasten dute; irakasleen heren bat baino gehiago

elebidunak dira; urtean, batez beste, 12-15 doktorego tesi idazten dira euskaraz, eta abar. Hori guztia garestia izan da; baina ekonomiaren ikuspuntutik guztiz «bideragarria» da, borondate politikoari erantzuten badio. Beraz, bada, ez engainatu eta esan egia: «Ele biko unibertsitate publikoa bideraezina da ekonomiaren ikuspuntutik, horrela izan dadin erabaki dugulako».

Zure bigarren adierazpena, aldiz, ez da trikimailu erretoriko hutsa; benetako iraina da Euskal Autonomia Erkidegoan zein Nafarroan unibertsitatean euskaraz lan egiten dugunontzat. Zure ustez, ele biko unibertsitate publikoa «unibertsitate txarra litzateke, ikerketa eta irakaskuntzaren kalitatea ez liratekeelako izango lehentasun, hau da, bikaintasunaren bila dabilzan unibertsitateen jardunak izan behar ditu bi ardatz». Hots, euskara eta unibertsitateko kalitateko irakaskuntza eta ikerketa bateraezinak dira. Bikaintasuna gaztelaniaz baino ezin da eskuratu. Zure moduko politikari batek, jakina, ez du eman behar argudiorik, ezta ematekorik izanda ere; zuretzat nahikoa da horrelako belarrondokoak ematea euskal eta nafar unibertsitateetako kide elebidunei. Baina, hori bai, ahoa bete egiten zaizu «askatasuna, berdintasuna, bazterketa eza eta elkarbizitza» aipatzen dituzunean euskara garatzeko politikaren alorrean. Alabaina, euskararekiko zure fobia zorrotz horren ondorioz zokoratze, bazterketa eta diskriminazio politika egiten ari zara eta politika horren emaitzak ari dira pairatzen euskaraz lan egin, ikasi eta ikertzeko aukera izan nahi duten guztiek. Zuk euskara gutxien baduzu folkloreko ondar bitxitzat hartuta, museo batean sartu eta gorde behar den ondarea delakoan, mesede eskasa egiten diozu bai Nafarroan bai Euskal Autonomia Erkidegoan dauden kultur sentsibiltate desberdinen arteko «elkarbizitzari»; eta une itxaropentsu honetan inoiz baino beharrezkoago ditugu komunikazio zubiak, elkarrenganako errespetua eta tolerantzia. Ez ditugu behar zuk bilatzen dituzun inposizioa eta liskarra. Euskaraz lan egiten dugun unibertsitateko kideok ez ditugu hartuko kontuan zure probokazioak, jakin badakigulako zuk gizarte polarizatu eta erradikala behar duzula hazteko, euskal eta nafar eskuinak historia garaikidean zehar beti erakutsi izan duen moduan. Horrexegatik, gutun honekin batera gonbidapen bat helarazi nahi dizut atseginez: ohorea handia izango litzateke guretzat egunen batean zu gure unibertsitatean bisitan hartzea, erakutsi ahal izango genizukeelako euskaraz ere egin daitezkeela kalitateko irakaskuntza eta ikerketa. Eta ez zaitez kezkatu beste arazoetatik: aldi bereko itzulpena jarriko dizut plazer handiz. Gastu hori eginda ere, gure unibertsitate publiko elebiduna ez da izango bideraezina ekonomiaren ikuspuntutik●

(LUDGER MEES Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara errektoreordea da)



behin baino
gehiagotan harritu
eta txunditu naizen
arren, nahiz eta ezin
dudan ulertu -ez
bada filia eta fobia
ideologikoen
ondorio diren
arrazoiak jota-
nola erakuts
dezakeen gobernu
batek hain
errespetu txikia,
mesprezu irekia ez
esatearren, bere
kultur
ondarearekiko eta
ordezkatu behar
duen gizarteko
sektore garrantzitsu
batekiko, inoiz ez
dut eman
ezagutzera nire
iritzia jendaurrean



- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goiaín Industrialdea
Tl/Fxa: 945 465 921
Tl. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net



eusko
alkartasuna

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea



Gazte
Abertzaleak

Euskeraz Araban BAI

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tnoa: 26 19 91
01004

HEGOALDE
Euskaltegia



Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ




APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

Eliseo Gil, Iruña-Veleia aztarnategiko arduraduna:

“Euskarazko lekukotasun gehiago agertu dira”



Mugimendu ugari topatu dugu Iruña-Veleia aztarnategian, bi ikasle talde gida banarekin dabiltza hara-hona. Txiki gelditu zaien lantoki prefabrikatuan hartu gaitu Eliseo Gil aztarnategiko arduradunak. Ondoan 5 lankidek hainbat aztarna aztertzen dihardute, goian Henrike Knörr eta Joaquín Gorrotxategi agertutako azken idazkien azterketan. Urduritasun kontrolatua eta baikortasuna sumatu dugu. Badirudi datozen urteetan Lautadako muino honek makina bat hitz, poz, eztabaida eta ustekabe sortuko dituela. Badakigu prentsaurrekoa eman arte (azaroaren bukaeran emango omen dute) ezin digutela dakitena esan. Halere, Eliseok modu atseginean hainbat pista eta baieztapen eman dizkigu, ez da gutxi!!

[kike fdz. de pinedo]

[arg.: edorta sanz]

Has gaitezen sorreratik. Azken aurkikuntzek bigarren mailan laga dute hiria bera, baina harrigarria da bere tamaina eta hedapena. Erromatarren aurreko hiria Karistiarren hiriburua eta gaurko Euskal Herriaren handiena zela esan liteke?

Nik uste baietz. Ezagunena hiri erromatarra bada ere, ez da ahaztu behar Veleia garai erromatarrean Euskal Herriko leku populatuena izatera iritsi zela, atzetik hedaduran eta populazioan giza errealitate garrantzitsua zuelako. Muino honetan K.a. 1000 urte ingurutik bizi izan ziren era finkoan. Hiri honek hiriburu baten funtzioak beteko zituen. Kontuan izan behar dugu garai hartan Euskal Herrian 300 herrixka inguru zirela eta hauen batez besteko tamaina 10 hektarea baino txikiagoa. Iruñan berriz, Antzinateko asentamendu handia genuen, hiria ere dei genezakeena, 50 hektarea inguru zituena eta bere kultura materialaren azterketak gizarte konplexua erakusten diguna. Bai kultura material honetan, bai arkitekturan badago bertako substratua, badira eragin kontinentalak, kanpotiko zaharrenak, eta badira ere Meseta aldeko zein Ebro aldeko eraginak. Hauek denek K.a. milurteko bigarren erdialderako giza errealitate sendoa osatuko dute. Karistiar edo "veleinse" hauek lurraldearen buru izango ditugu, beraz.

Noiz hasten da garai erromatarra eta nola ematen da uztarketa aurreko herrixka eta mundu erromatarraren artean, badago mundu indigenaren jarraipena?

Gaur egun ezin gara zifretan sartu, oraindik orduko errealitatearen zati bat baino ez baitugu ezagutzen. Baina gure hipotesia zena baieztatu



eliseo gil euskarazko idazkunak aurkitu diren etxean

dezakegu, hots, jarraikortasuna. Populazio berbera da garai erromatarrean eta aurretik bertan bizi zena. Nola dakigu? Batetik, hilobi-errituen jarraikortasuna. Izan ere, lehenengo aldiz Veleian frogatu ahal izan denez, etxe barruan lurperatzeko ohitura indigenak K.a. 1000 urtetik hiria desagertu arte -V. mendearen bukaera- iraun zuen. Bestetik, gorpuzki hauen ADN fosilen analitikak, era esperimentalean egin bada ere, populazioaren jarraipena frogatzen digu era berean.

Ez da, beraz, eraikuntza koloniala, eta ezta *beteranoen* asentamendua ere, baizik eta bertako jendartearen promozioa. Erromanizazioa K.a.

1. mendean hasiko zen, orduko hainbat txanpon eta bestelakoak aurkitu baitira. Eta orain arte dakigunaren arabera, bat egingo zuten mundu erromatarrarekin ez era traumatikoan, baizik eta aliatu edo ez beligerante bihurtuz.

Zein portzentaia osatuko zuten italiar jatorrikoek?

Veleia oso ondo komunikatua egoteak ideia, gurdi eta jende mugimendua errazten zuen, baina gaur ditugun datuen arabera eta erreserba guztiekin, atzerritarren portzentaia baxua zatekeen.

Veleia erromatarra merkataritza

“jadanik ez da ekintza
isolatua, hau da, duen
dimentsioa eta izango
dituen historia-
inplikazioak espero
baino handiagoak
dira”

“euskarazko
lekukotasun kantitate
dexentez ari gara, bai,
bai, jakina, eta
lehengo lekuaz
gainera leku berrietan
ere azaldu dira”

**gunea izanik, gertuko eta urrutiko
trukeen lekua izan omen zen,
batzuk harrigarriak gainera?**

Bai, dudarik gabe. Nagusiki merkataritza erregionala emango zen baina ez ziren faltako Galia, Afrika edo Italiako produktuak. Zer dugu? Kontsumokoak: ardoa, gehiena Kataluniatik ekarria nahiz eta Italiako Vesubiokoa ere topatu den; zerealak; jaki gazituak; olioak, anforetan gordea edo argia emateko hamaika olio-lanparatan oso erabilia,... Ontziteria gehiena Inperioko buztingintza gune handienetakoa zen Errioxako Triziokoa zen hain juxtu, urrutikoa falta ez bada ere. Edo eraikuntzak edertzeko asmoz Ereñoko marmola, kanpokoak badiren arren. Ikusten dugunez, edozein zeramika puskak informazio harrigarria eman diezaguke.

Produktu hauek garraiatzeko



pompeia valentina deitutako etxe honetako eskola-gelan aurkitu ziren lehenengo idazkunak

“populazio berbera da
garai erromatarrean eta
aurretik bertan bizi zena”

**Asturica-Burdigala bideaz gain,
Zadorra ere erabiltzen omen
zuten?**

Kontuan hatu behar da, Logroño ondoko Varea, nolabait esatearren, Mediterraneoko azken itsas portua zela eta bertaraino tamaina dexenteko itsasontziak iristen zirela. Zadorraren emaria ez da Ebrorena, baina baliteke merkantzia garraiatzeko erabili izana eta zentzu honetan, baditugu ibai-portuak izan zitezkeen hainbat kokapen identifikatuak; betiere lehorrek baina merkeagoa. Edozein kasutan, Asturica-Burdigala galtzada izango zen merkataritza-bide nagusia.

**Oraindik hiriaren esparru gehiena
ukitu gabe dago, baina hiria 100
hektareakoa eta 5.000-10.000
pertsona inguru biziko zirela
aurreratu duzue. Konpara daiteke,
hortaz, Tarraco edo Merida**

“veleiatarrek uste
baino antz handiagoa
zuten gurekiko”

bezalako hiriekin?

Konparaketa guztiak konplikatuak dira. Hipotesi moduan, ez dugu espero Penintsulako hegoaldeko maila monumentala, Bética-n ematen dena adibidez. Hango hiriek estatus berezia eta maila ekonomiko handiagoa baitzuten. Hemen beste maila batean gaude, Iparraldeko ereduarekin antza handiagokoa, adibidez Ingalaterrako hegoaldeko hiriekin. Erromatar mundua lotu ohi da alde mediterranearekin, baina ez da ahaztu behar badagoela beste eredu atlantiarra. Zentzu honetan, Tarraco edo Meridaren garrantziarekin ezin gara konparatu baina badugu zer esanik, besteak beste, eguneroko bizimoduaren ezagupenetan. Bide honetan ari gara gauza oso interesgarriak aurkitzen. Halere, hiriaren tamaina kontuan hartzekoa da, Penintsula osoko 23 harresidun hirietako bat >>



Veleia izan baitzen, eta gainera, harresia eraikitzen Penintsulako aurrenetakoa, III. mendearen bukaeran edo IV. mendearen hasieran.

III. mendean hiriak krisi bat gainditu eta gero V. mendearen bukaeran desagertzen omen da. Zergatik?

Badira hainbat hipotesi. III. mendearen krisia gaindituta garairik distiratsuena biziko du hiriak harresiaren eraikuntza eta guzti, eta honek Estatuaren interesa adierazten du. Baina defentsagotorleku funtzioaz gain, batez ere hiria prestigioa eta irudiarekin lotu behar dugu, helburu ideologikoa lehenetsiz praktikoaren gainetik. Behin eraikita, IV. mendean garai oparoa ezagutuko da eta gero V. mendea gaizki hasi eta okerrago bukatuko da, "barbaroen inbasioak" eta batik bat, 466 urtean Mendebaldeko Erromako Estatuaren erorketarekin. Egoera hartan ziurtasunik eza, zergen presioa eta honelakoak azaleratzen dira eta ordura arte abantailak zirenak oztopo eta zailtasun bihurtuko ziren. Ondorioz, jendeak alternatibak bilatuko ditu, batzuek aszetismoa eta erlijio-mugimenduaren barruan koba artifizialekara joko dute, garai hauetan okupatzen hasten baitira, beste batzuek defentsa erraza zuten Erdi Aroko kastroak aukeratuko

dituzte eta beste batzuek, aldiz, euren lurraldeetara emigratuko dute, Meseta-ra edo Inperioko beste leku batzuetara. Honek ez du esan nahi hiria erabat hustuko zenik, oraindik VI. mendean jendea bizi zen hondar-moduan bazen ere. Eta oraindik ez dakiguna da ea jarraikortasunik eman ote zen biztanle hauen eta Erdi Aroan hiriaren bihotzean kokatu zen *Jerusalengo San Juan Enkomienda*-ren artean.

Gatozen azken aurkikuntzei, prentsaurrekoak eman zenituztenetik zein eragin eta oihartzun izan duzue hilabete hauetan maila zientifikoan, nazioartean, turistikoa...?

Maila guztietan eman dira. Hedabideetan agertu izanak bisitak areagotu ditu nabarmen. Hedabideetako oihartzuna munduko ia bazter guztietara iritsi da, Google news-en bilatu eta Zelanda Berriko egunkari batean aurkikuntzen berri topa zenezakeen. Zientzi komunitatean eragin zuzena izan du. Gure 10 arkeologo taldean eta gurekin lan egiten duten laborategi eta unibertsitate mailako sarean ere bai. Eta gero, mundu akademikoan, gizartean eta kanpoan jende asko dugu zain; kanpokoen artean Euskal Etxeek edota Renoko unibertsitateak jakingura handia erakutsi digute...

Lehenengo ezustekoa Pompeia Valentina deitutako etxeko multzo epigrafikoa izan zen, eskola munduarekin lotutako oharra, marrazkiak, kalbarioa... Hilabete batzuk igarota kontu hau sakon dezakezu

Oraindik asimilatzen ari gara eskaintzen digun informazio historikoa. Izan ere, gure tempo hedabideenarekin lotu da eta honek azeleratu gaitu. Baina oraindik zuku gehiago atera behar zaie, xehetasun ugari daude eta denbora eskatzen dute. Mundu liluragarria da duda barik.

Hauetako graffiti batzuk harrigarriak dira: munduko kalbariorik zaharrena, gurutzearen gainean R.I.P. agertu izana, hieroglifikoa... Honek guztiak eszeptizismoa sortu du hainbat forotan.

Normala da. Nik honetan lasaitasuna eskatuko nuke. Gu, gainontzeko kide gehienak bezalaxe, beste talde baten ikerketa ireki batean sartuko ez ginatekeen moduan, eta gutxiago ondo ezagutu gabe, bada filosofia moduan horixe eskatzen diegu besteei. Bestetik, jendeari esango genioke lasai egoteko. Izan ere, protokolo guztiak bete dira. Gainera, ez dira aurkikuntza isolatuak, baizik eta ikerketa sistematikoaren bidez lortutako ehunka aurkikuntza. Eta

"tarraco edo meridaren
garrantziarekin ezin
gara konparatu baina
badugu zer esanik,
besteak beste,
eguneroko
bizimoduaren
ezagupenetan"

are gehiago, dituen inplikazio historiko eta sozialak kontuan hartuta. Zentzu honetan gure eskura dauden analitika guztiak egin ditugu: metodo arkeologikoa, estratigrafia, *carbano 14*, neutronen baimuaren bidezko patinaren azterketa... Beraz, eskaini dugun informazioa aski kontrastatua da. Bestalde, laborategi independenteetan egindako azterketak hor daude, beste edozein taldek berregin ditzake nahi izanez gero.

III. menderako kristautasunaren agerpenaz zer diozu? Ekialdeko jatorriaz, sarbideaz, Komunitate osoan zabalduko zen? Sinesmen indigenekin batera biziko zen?

Aurreko mendean dagoeneko erabiltzen zen Ekialdeko jatorriaren hipotesia, Afrikakoarekin batera. Beraz, Veléiaren kasuan hipotesi horien baieztapena izango litzateke. Hirian izan zuen zabalkundeaz, zerbait isolatua ez zela esan dezakegu. Eta ez dakigu populazioaren zein portzentajek parte hartuko zuen kristautasunean; etorkizuneko ikerketek argitzea espero dut. Dena dela, geroko iturriek adierazten diguten bezala, nik uste dut bazirela oraindik hainbat talde berezko ideia-sistema eta sinesmenak zitutzenak, eta beste leku askotan bezala, sinkretismo fenomenoak emango zirela. Hau lan-hipotesi moduan diot, jakina.

"bat-batean ernetze
moduko izango zuten,
eta euren
bizimoduaren
alderdiak edo
sinesmenak idatziz
agertzeko beharra
sentitu ere bai"

Bigarren multzo epigrafikoak ere zalaparta handia sortu du bere euskal hitzekin. Zer aurrera dezakezu uda honetan topatutakoaz top secret ez bada?

Kar, kar... Datu gehiago daudela aurrera daiteke. Jadanik ez da ekintza isolatua, hau da, duen dimentsioa eta izango dituen historia-inplikazioak espero baino handiagoak dira. Ez da zerbait puntuala, baizik eta ondorio nabarmenak izango dituen beste zerbait. Orain ari gara jo eta su datuen ikerketan ohiko protokoloen bitartez: datazioa, analitikak..., eta zientzia-filologia-historia ikerketekin.

Euskarazko hitz eta lekukotasun gehiago aurkitu direla esan duzu, baina zer dira, gutxi batzuk edo dexente gehiago eta leku berean aurkituak...?

Lekukotasun kantitate dexentez ari gara, bai, bai, jakina, eta lehengo lekuaz gainera leku berrietan ere azaldu dira.

Aurkikuntza berri hauekin nola aurrikusten duzu hiriaren hizkuntza eta kultura-egoera?

Aurkikuntzak oraindik labeen daude, baina gaurkoz uste genuen baino konplexuagoa. Guk orain arte gauza asko idatziz azaltzeko beharrik ez zutelako ideia heredatu dugu. Hasteko, orain kontzeptua bera aldatzen zaigu, veleiatar hauek

"orain arte izan
ditugun zertzelada
apurrek hori erakusten
digute, hizkuntza
egoera konplexua"



lan taldea aztarnak aztertzen

berezko edo, seguru asko, kanpoko estimulu edo gertaera batek lagunduta bat-batean ermetze moduko izango zuten, eta euren bizimoduaren alderdiak edo sinesmenak idatziz agertzeko beharra sentitu ere bai. Gu, beraz, pribilegiatuak gara denbora-kapsula horretan sartu ahal izan garelako eta gurekiko uste baino antz handiagoa zutela lasai asko esan daiteke.

Zein hizkuntza-egoera egongo zen, elebiduna...?

Seguru!!..., seguru, gehiago ez bada..., gehiago ez bada...! >>

Izan ere, erabateko elebitasunak segur aski euskararen galera ekarriko zuen?

Jakina!!

Beraz, hainbat elebitasun maila emango ziren eta tartean batzuk elebakarrak?

Seguru, seguru!! Nik uste baietz, orain arte izan ditugun zertzelada apurrek hori erakusten digute, hizkuntza egoera konplexua.

Hemengo erromatarren aurreko tribuak (autrigoiak, karistiarrak, barduliarrak, baskoiak) euskaldunak zirela, indoeuroparrak zirela, hikamika ugari suertatu da historikoki. Aurkituntza hauek argituko al digute auzi hau?

Agian goizegi da, baina nik uste ikuspegia errotik aldatzen dela. Orain arte adituek eta filologoek substratu indoeuroparra identifikatuta zuten eta hori hor dago, hori egia da. Baina hemen aurkituko dugu beste hizkuntz errealtate bat. Lurralde honetan

kultura materialean baskoi munduarekin zenbait antzekotasun finkatuta genituen eta ildo honetan hau beste froga bat da.

Iruña-Veleia oso berezia da edo beste leku batzuetan ere antzeko gauzak topa daitezke eta ikerketa-metodoa da kontua?

Biak. Veleia aparta da. Batez ere ikerketarako duen ahalmenagatik, aztarnen kontserbazio egoeragatik, eta metodologia zehatza ezarri diogunean emaitza izugarria izan da. Halere, seguru nago, apustu moduan diot, azken ikerketen emaitzak argitu orduko zenbait aurkituntza isolatu, zuhurtiaz "hozkailean" egon direnak, agertuko direla.

Zertan aldatu dezake Iruñak Euskal Herriko Historia?

Hainbestetan errepikatu ditugu zeintzuk ziren gure identitate zantzuak, non edukia ia galdua genuen. Orain, zorionez, baditugu froga materialak, pisatu eta neur daitezkeenak, ez da,

"aurkitutakoa ez da zerbait puntuala, baizik eta ondorio nabarmenak izango dituen beste zerbait"

hortaz, sinesmen edo ideologia kontua. Eta uste baino gizarte konplexuagoa azaltzen zaigu. Harro senti gaitzke gure arbasoez, gauza asko gaizki egingo zituzten, baina gauzak onak ere bai.

Nola sentitzen zarete zu eta taldea, asebeteta, urduri, zain...?

Zain, oraindik ez dugu jabetu nahi izan honek guztiak izango dituen ondorioez. Emozio ugari ere bizi izan ditugu, baina zirrararekin batera sentimenduei eusten ahalegintzen gara burua hotz mantentze aldera.

Gu ere zain gaituzue. Zorionak eta laster arte●

Zure denda erotikoa

SEX

PITTILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60
DONOSTIA
OIA RTZUN

LA RIOJANA
jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztozile kalea (Kutxi), 33 Tfnoa. 945 25 02 39

geugasteiz.com

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

Bacalao Giraldo

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatura - Zaldian plaza
GASTEIZ

HELADOS

Nestlé



eguneko menua

DIBUtec

Paper Beraziak
Arte Ederrerako Materiala
Ink Jet original eta birziklatuak
Bulego Materiala
Enkoadernazioak
Plastifikazioak
Kopiatuak
Kamiseten Estampaketak

Dazkarprint

Impresia / Inprimategia
Edozein inprimaketara
mota.

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

JULENE HIRD RADOTIC

“Gehien gustatzen zaizkidan hizkuntzak bi dira, ingelesa eta bosniera”



[maite lekue] [arg.: edorta sanz]

Nolatan dakizkizu hainbeste hizkuntza? Nire aita ingelesa da eta ama berriz, bosniarra, horregatik dakizkit haien ama-hizkuntzak. Bestalde, eskolan euskara eta gaztelera ikasi nituen.

Non jaio zinen? Gasteizen, Txagorritxun, 1995eko Martxoaren 29an.

Zer egiten duzu aisialdian? Gimnasia erritmikoa eta saskibaloia praktikatzen ditut. Marrazketa eta etxeko lanak ere egin behar izaten ditut.

Eta asteburuetan? Aitarekin bizikletaz ibiltzera joaten naiz.

Zein hizkuntza hitz egiten duzu gurasoekin? Eta lagunekin? Aitarekin ingeleraz eta amarekin, aldiz, bosnieraz, amama eta izekorekin bezala. Lagunekin euskaraz eta gaztelaraz egiten dut.

Zer da egitea gehien gustatzen zaizuna? Xirula jotzea eta musikarekin jolastea.

Eta gutxien? Jantokian gelditzea.

Zerk alaitzen dizu eguna? Animaliak ikustera joaten garenean asko pozten naiz.

Eta zerk haserrarazten zaitu? Mutilek gauza txarrak esaten dituztenean haserre ipintzen naiz.

Jaki faboritorik? Entsalada eta xerra.

Hizkuntzez gain zertan zara trebea? Ingurunea ondo ematen zait.

Telebista ikustea gustatzen zaizu? Zein saio? Bai. Megatrix gustatzen zait.

Beldurrik baduzu? Ez.

Gasteizko zein toki da zuretzako politena? Alde zaharra.

Kolore bat? Bi, zuria eta beltza.

Zein da esan duzun gezurrik handiena? Liburu bat irakurri nuela eta ez zen horrela izan.

Eta egia-rik borobilena? Matematikak asko gustatzen zaizkidala.

Gorputzeko atalik politena? Begiak.

Zein da zuri gehien gustatzen zaizun hizkuntza? Bi dira, ingelesa eta bosniera.

Eta zailena? Bosniera.

Julene bederatzi urteko neskatila da. Begi urdin-urdindunak, ile horia eta alaia. Lau hizkuntza menperatzen ditu dagoeneko, bosniera, ingelesa, gaztelera eta euskara. Angel Ganibet ikastolara doa eta bere zaletasunen artean gimnasia erritmikoa, musikarekin jolastea eta ingurumenarekin gozatzea daude. Gasteizen euskaraz bizi daitekeela uste du eta berak lagunekin hitz egiten du euskaraz, amarekin bosnieraz egiten baitu eta aitarekin, aldiz, ingelesez.

Kirola egitea gustatzen zaizu? Zein kirol? Bai, gimnasia erritmikoa eta saskibaloia.

Zure ametsa zein da? Gimnasia erritmikoan sari bat irabazten dudala.

Zein da eskolan gustuko duzun ikasgaia? Ingurunea.

Zer da ikastolak duen onena? Gimnasioa.

Eta txarrena? Gelak oso txikiak direla.

Zer da Gasteizek duen onena? Salburua oso ondo jarri dutela.

Eta txarrena? Etxe asko daudela Salburuan.

Zure ustez euskaraz bizi daiteke Gasteizen? Bai●

[ainhoa arriaga & naraa cuesta]

MUSIKAZALEA AL ZARA?

Musika da arteak ematen digun altxor preziatuenetako bat. Erloxatzeko, dibertitzeko, sentitzeko, komunikatzeko...erabiltzen duguna. Imaginatzen duzue musikarik gabeko bizitza bat? Ezinezkoa egiten zaigu horretan pentsatzea, izan ere, nonahi aurki dezakeguna baita. Baina arte mota guztietan gertatzen den bezala, bakoitzak musika mota bat du gustukoaren eta normalean, egoten diren ekitaldietara joatea gustatzen zaigu. Honetaz guztiaz hitz egiteko irten gara kalera oraingoan eta iritzi nahiko desberdinekin egin dugu topo.

- Zein musika duzu gustukoaren?
- Kontzertuetara joan ohi zara?
- Zer iritzi duzu Gasteizen dagoen kontzertu eskaintzari buruz?



Mikel Iñiguez de Nanclares. Historia ikaslea

- Ska-rocka da gehien gustatzen zaidan musika. Sociedad Alkoholika eta La Polla erako taldeak entzun ohi ditut.
- Bai, Fermin Muguruzaren azken kontzertura joaten saiatuko naiz.
- Orokorrean gutxi direla uste dut. Normalean Gasteizen bainoago, herrietan dauden kontzertuetara joaten gara. Eskaintza hobea dagoela uste dut.



Gorane Etxebarria. Irakaslea

- Egia esan ez naiz oso musikazalea. Hala ere, entzutekotan euskal taldeen musika izan ohi da. Gatibu erako taldeak ditut gustukoaren.
- Ez naiz maiztasunez joaten, baina noizbait joan izan naiz.
- Ondo iruditzen zaizkit aurrera eramaten diren ekimenak. Nahikoak direla uste dut.



Maddi Martinez. Kazetaritza ikaslea

- Ez naiz oso musikazalea, baina S.A. mitikoa eta Garagardo Gura talde hasi berria oso gustuko ditut.
- Ez askotan, baina kontzertu mitiko horiek ez ditut galtzen, eta gainera lagunek konbentzitu egiten naute beste batzuetara ere joateko.
- Nik uste dut Gaztetxean eta horrelako taberna txikietan, edo toki alternatibo hauetan badagoela nahiko eskaintza handia. Baina bestelakoetan oso murrizta dela esango nuke.

IDAZLEENZUTABEA

GITIAN TXOSTA KANBERAN

[joxean sagastizabal]



Guillermo Arriaga eta Patxi Gallego, horra hor nire bizitzan azken honetan berriz -ez baitzen lehenengo aldiz- agertutako gizonak.

Arriaga mexikarra da, Alejandro Gonzalez Inarritu zine zuzendariaren filmengidoigilea, alegia, "Amores perros" "21 gramos" eta "Babel"- idatzi zituenak.

Gizon honen nobela bat daukat begien aurrean, "El búfalo de la noche", zeina gaur hasi bainaiz irakurtzen, eta barneko solapan egilearen argazkia dator, idazleak berak emaniko zenbait daturekin batera; kontu biografikoak eta baita iritziak ere. Argazkian 1958an sortutako gizaseme bat ageri da, cow-boy kapela buruan. Irribarretxo bat itxuratzeke ezgai ematen du (seguru gai dela, baina ez du ematen), eta ehiztaria dela diosku, boxeoan aritu zela, txikitako borroketan hartutako zartakoengatik usaimenik ez duela... tipo gogorra emango luke haren gidoiekin egindako filmak ikusi gabe ere, baina ikusitakoan... nekez imajinatu dezaket "21 gramos" baino argumentu txikitzaileagorik.

Guillermo Arriagari "Gogortasunaren" etiketa itsatsiko diogu.

Patxi Gallego jauna dugu txanponaren beste aldean; nik, komikizale amorratua naizen honek asko zor diot Patxiri, "Pololoak" sailaren egileari, "Xabinaitor" super-heroiaren aitari. Zenbat barre-saio egin ote ditut super-zakila beti super-tente duen poxpoliñen zaindareekin! Trilogiaren bigarren alea irakurri berria dut, non nire bizitzan lehenengo aldiz zikin-lizunberdekeriak bizkaieraz irakurtzeko aukera eduki duan ("erakutsi neure barnean isurtzeko irrikitan dauen hori kirten beroori", "jaurtioxu zeure espermie Euskal Herrixari"...); Patxi erreteriarra, ganberro mundiala, neronek emailak bukatzeko erabiltzen duan Zuberoako herri kanta batetik hartutako esalditxo bat (gitian txosta kanberan!) super-heroiari kantarazten diona; zenbateraino sentitzen duan gizon hau gogokide!

Patxirentzat "Jolasaren" etiketa.

Zer esan nahi duen zubererazko esaldiak? GAITEZEN JOSTA LOGELAN!●

gasteizko hiru gaztek irabazi dute diocesanas ikastetxeak araban antolatu euskal ipuin lehiaketaren 4. edizioa

corazonistas ikastetxeko **ane aberasturi**, diocesanaseko **david martinez** eta sagrado corazón ikastetxeko **raquel madrid** izan dira araban euskal ipuin lehiaketaren laugarren edizioko irabazleak.

duela lau urte arrakastaz hasi zen lehiaketa hau diocesanasen antolatu du eta caja vital kutxa eta elkar megadenda izan dira babesleak.

lehiaketa honekin, diocesanasen helburua araban euskararen erabilpena sustatzea da, baita literatura euskaraz sortzea ere.

lehiaketak hiru kategoriatan ditu: lehen hezkuntzako ikasleak (5. eta 6. ikasturteko ikasleak soilik), dbh eta azkenik, batxilergoa eta heziketa zikloak. ondorengoak saritu ditu epaileak: ane aberasturi lehen hezkuntzan, david martinez dbhn eta raquel madrid batxilergoan eta formazio zikloetan. lehenengoak 'denboran zehar katedralean' ipuinarekin lortu du saria, bigarrenak 'koldoren bidaia'rekin eta azkenak "ametsa eta egia" lanarekin.

errekorra parte-hartzean

arabako euskal ipuinen lehiaketak interes handia pizten du, lehen fasea gainditu zuten ipuin kopuruak kontuan hartuta. jasotako ipuin guztien artean lehen aukeraketa egiten da eta hortik erabakitzen dira kategoriatan bakoitzeko irabazleak. joan den urtean osoko errekorra gainditu zen, aurrez aukeratutako istorio kopurua hirukoiztu. laugarren edizio honetan, errekorra mantendu egin da, aurrez aukeratutako 59 ipuineko kopuruarekin. gainera, ekimen honetan parte hartu duten zentro kopurua mantendu da. 2005ean %50 ugaritu zen parte hartu zuten zentro kopurua. oraingo honetan, kopurua mantendu egin da eta lurraldeko 12 heziketa zentrok lagundu nahi izan diote diocesanasen arabako euskal ipuinen lehiaketako laugarren entregara.

ibon saenz de olazagoitiaren erakusketa

gasteizko montehermoso kulturuneke beheko solairuan ikusgai dago azaroaren 12ra bitartera ibon saenz de olazagoitia artista gasteiztarren 'eguneroko gorabeherak-accidentes cotidianos-the changing

project(ions)' erakusketa, 2005eko sorkuntzarako bekak programaren barruan kokatzen dena.

losdelgas musika taldearen 1. cd-a

urrian aurkeztu zuen losdelgas taldeak bere lehen diskoa, 'el cedé', bai eta erantzun oneko kontzertu bat eskaini ere, gasteizko circulo aretoan. losdelgas 6 lagunekoa taldea dugu: gorka aginagalde aktore gasteiztar ospetsua abeslari, eta euskal



herriko musika panoraman eskarmentu handia duten 5 musikari: javi area, pirata, ritxi salaberria, sergio callejo eta xanet arozena. umorez eta kritika isekari eta garratzaz beteriko rock apustua "ondo pasatzeko eta ganberroa egiteko".

www.losdelgas.com

neubat taldearen disko berria

neubat talde gasteiztarrek urriaren 25ean aurkeztu zuen 'stereosaurus' disko berria, gasteizko hala bedi tabernan. taldeak lan berria plazaratzen du sorkun abeslariaren 'duna' disko berrian eta bere kontzertu biran parte hartu ondoren. honekin batera taldeak bere lanak argitaratzeko sortu duen 'matasellos' zigilua ere aurkeztu zuten eta 'shangai' bideo berria ere erakutsi. hurrengo egunean kalitatezko kontzertua eskaini zuten sorkunekin batera gasteizko gaztetxean.

haur txikiekin euskaraz hitz egiteko gida-liburua

aguraingo udaleko eta asparrengo udaleko euskara zerbitzuak euskararen transmisioa bultzatzeko asmoz antolatu duen ekimena dugu honakoa, euskarazko haur hitzak, kantak, ipuinak... jasotzen duen kuku liburuxkaren argitalpena eta banaketa herriko haur jaio berrien artean. horretarako, azken urtean bertan errolatu direnen

tutoreei dei berezia egin zaie aipatu liburuxka jaso dezaten. halaber, herriko ikastetxeetan (0-3urte bitartekoaren artean) banatzen ari dira. informazio gehiagorako 945301200 telefonora deitu.



toloño taberna pintxo txapelketan txapeldun

enrique fuentes aristuren gasteizko toloño taberna ospetsua suertatu zen garaile hondarribian ospatu euskal herriko I. pintxo txapelketan, lurrari eta itsasoari loturiko oso bertako apustuarekin: babatxoaren hostopila berdel pistoaren gainean. Bertatik pasatzen den orok aukera du pintxo goxo hau dastatzeko. on dagizuela!

euskadi sariak

azaroaren 28an banatuko dituzte sariak gasteizen

iban zalduak eraman du euskarazko ipuinen ataleko euskadi saria, 'etorkizuna' izenburuko ipuinarekin; euskal ipuingintzaren aldeko aldarrikapen nahi luke iban zalduak bere euskadi saria.

pruden gartziaren 'lazaragarren ernazimentua euskaraz', koldo izagirreraren 'sua nahi, mr churchill?', karlos linazasororen 'denbora aleak' eta xabier montoiaren 'bingo (poemak 1981-2000)' izan dira atal honetan sarirako finalista.

itzulpengintzako euskadi saria xabier olarrak itzulitako raymond quenauren 'estilo ariketak' itzulpenak eraman zuen, hain zuzen, geu elkarteak aurrera eramaten duen irakurle klubaren aurkezpenerako hautatu liburua.

patxi zubizarretak jasoko du aurtengo haur eta gazte literaturako euskara ataleko euskadi saria iaz pamiela etxearekin argitaratu zuen 'pantaleon badoa' abenturazko lanarekin.



ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ



**XABIER
AIZPEOLEA** HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

El Clarete

JATETXEA



UNAI ETA PATXI FERNANDEZ DE RETANA

ZERKABARREN KALEA, 18

01008 GASTEIZ

945 263 874

IRVSTA TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Sarta

Zure arropa eta oinetakoak

www.sartadenda.com

Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BASRAL
TABERNA

Figuraditan, astoak, enetik, oinadetan

**JANTOKI
BEGETARIANO**

SAN FRANCISCO XABIERKOAKEN KANTOLA, 4

01001 - GASTEIZ

TEL.: 945 27 65 33

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Musika eskola
- Ume eta gaztekoentzat
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

ARTEPAN
Artisan

Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ

**EYSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

**Gasteizko
haragitegirik zaharrena**

Errege atea, 24

Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Confecciones


Pinedo

JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ

Tfnoa: 945 23 39 90

MENDIA OPTIKAK 150 URTE



ikus dezazun

Zatoz eta eraman
opari -oroigarri
bat zure
erosketarekin

1856-2006

Mendia Optikan belaunaldiz belaunaldi zaindu ditugu zure begiak.

Gaur egun teknologia berrienak erabiltzen ditugu, baina hasi berrian bezala, gogo eta arreta berberaz zerbitzatzen zaitugu.


150 urte bete ditugu, eskerrak zuri.

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel 33.
Gasteiz

ANJE DUHALDE:

*“Oinazetik sortzen dut
zorionetik baino gehiago”*



Hegoaldea ongi ezagutzen duen lapurtarra da Anje Duhalde (Arrangoitze, Lapurdi, 1950). Gaztetatik musikari eta kantari, euskarazko rockaren hasiera markatu zuen Errobi talde mitikoaren sortzailea izan zen Mixel Ducaurekin batera. 80. hamarkadan bakarkako ibilbideari ekin zioenetik hamaika disko kaleratu ditu; azkena, Sorminetan (Elkar). Bederatzi urte pasa behar izan dira kanta propioekin disko bat ateratzeko.

[edurne begiristain]

[arg.: ander gillenea]

Nola definituko zenuke Sorminetan lan berria?

Ez dakit...(isilune bat)... Nik uste nire betiko estilotik egindako disko bat dela, beharbada arreta gehiago jarri diot musika zaintzeari, alde batetik, Rafa Ruedak lan handia egin baitu musika produkzioan, eta beste aldetik, Xabier Amurizak testuak egiteko lan asko egin duelako, letrak sortu egin baititu eta gainbegirada bat eman dielako

gehiago sortzea; baina hori ez da bakarrik nire egoera, musikari guztiek nolabait bizi izan duten zerbait da. Esan nahi dudana da oinazetik edo minetik sortzen dudala zorionetik baino gehiago. Hori da diskoaren muina. Sormenari egindako kantu bat ere badago, eta letra irakurtzeko denbora pixka bat hartzen duenak, ulertuko du zergatik izenburua.

Bederatzi urte pasa behar izan dira kanta propioekin diskoa kaleratzeko. Zer dela eta tarte luze hori?

egin nahi nuelako pasatu da hainbeste denbora. Nekea eta alferkeria pixka bat ere izan da, hori aitortu behar dut, kar, kar!

Letra gehienak Xabier Amurizarenak dira. Bera hautatzearen arrazoia?

Elkarrekin lan asko egin dugu. Xabier artista handi bat da, eta hitzari edertasuna emateko orduan berarengan pentsatu dut beharbada konfiantza gehien berarekin dudalako, eta elkar ongi ezagutzen dugulako. Nik uste filosofiko-politikoki ideia bertsuak ditugula, bat egiten dugula. Eta gero niri Xabierren idazteko era asko gustatzen zait. Badaude beste bi kanturen letrak, Gasteizen bizi den oñatiar idazle batenak, Gerardo Markuletarenak. Bere azken liburua irakurri nuen, eta bere idazteko era gustatu egin zitzaidan, olerki oso musikalak egiten dituela uste dut, eta gaiak ere oso subjektiboak dira.

Betidanik oso kantari konprometitua izan zara. Baina aurreko diskoetan ez bezala, honetan ez dugu aurkituko mezu politiko zuzenik, ezta?

Badira bizpahiru kantu zuzenki oso lotuak direnak gaur bizi dugun egoerarekin: badago kantu bat, Airez aire, Irlandako prozesuarekin zerikusia duena, baina gurearekin ere bai, itxaropenezko kantu baikor bat da. Beste kantu bat, gaur egun Iraken eta Afganistanen dauden gerrei buruzkoa da,... Jendeari konturarazi nahi diogu zer gertatzen den baina metaforen bidez, ez panfleto bat eginez. Kontua ez zen Amnistiaren Dema bis edo Bakezaleak gara bis berriro egitea, horiek eginda baitaude. Disko honetan letrak entzuteko arreta jartzen duenak aurkituko ditu gaur egun bizi dugun egoerari buruzko kritikak. Nire konpromisoa ez da aldatu alde horretatik.

Kolaborazio esanguratsuak izan dituzu lan honetan, Xabier Amuriza



beste hainbati. Kantutik kantu disko nahiko zehatza egin nahi izan dugu. Gizartearen gorabeheraz mintzatzen naiz, baina bereziki beherakoaz gehiago. Euskal Herriaren egoera ere aipatzen dut, ikuspegi sozial eta politiko batetik.

Sorminetan izena nondik dator?

Xabierrekin komentatu nuen kantu bat egin nahi nuela sormenari buruz, izan ere, kostatu egiten zait gero'eta

Denbora asko da eta aldi berean, ez da asko. Baina beharbada izan da zalantzak izan ditudalako, tartean ere beste lan batzuk egin ditudalako,... Gainera denbora laster pasatzen da, aldi berean neke bat sartu zait, tartean ere osasun arazoak izan ditut... eta horrek guztiak egiten du urteak egunetik egunera, eta hilabetetik hilabetera pasatzea konturatu gabe. Zeozer egitekotan, zerbait ongi prestatuta eta hausnartua



eta Rafa Rueda aipatu dituzu... Kantu batean Benito Lertxundiarekin ere abesten duzu. Nola sortu zen berarekin abesti bat kantatzeko ideia?

Mixel Labegueriek hil aurretik kanta bat egin zuen, Oi kanta berri. Letra oso zuzena da, kantu hunkigarria da, baina ez nekien nola ekin horri. Kanta hartu nuenean pentsatu nuen abesti hori bertsolari batenaren modukoa zela, eta pentsatzen hasi nintzen, telefonoa hartu eta Benitori deitu nion. Nik oso ohore handiz hartu nuen bere onarpena eta parte-hartzea.

Eta beste kolaboratzaileekin zer moduzko esperientzia izan da?

Oso ona. Rafa Rueda Lauaxetaren egitasmoa egin genuenean ezagutu nuen, eta hor ikusi nuen nolako irekidura, ahala eta gustua daukan; oso musikari eklektikoa da, esparru asko kontrolatzen dituen. Eta disko hau egiterakoan apustu moduan hartu nuen nire buruarekiko, eta pentsatu nuen berari eskaintzea. Oso pozik nago emaitzarekin, Rafak nahiko lan mugatua eta neurtua baitzuen, kantak oso estrukturuak edo bukatuak zeudelako, baina benetan asmatu du eta bere estiloa ere ekarri du, betiere nik kantatzeko dudak era errespetatuz. Amurizak edertasuna ekarri badie hitzei, Rafak gauza bera ekarri dio musikari.


Errobi talde mitikoaren sortzaile izan zinen eta 80. hamarkadatik aurrera bakarkako ibilbideari ekin zenion. Kostatu zitzaizun Errobiren itzaletik aldentzea?

Bai, hori beti kostatzen da. Jendeak beti identifikatzen baitzaitu ezagutzen duenarekin. Baina, kostata ere, ez da zaila izan. Egia da 85etik 90era bitartean nahiko borrokatzaile izan nintzela nire izena inposatzeko, baina hori gauza naturala da eta jendeak ikusten duenean jarraipena dagoela, onartu egiten du. Ez dut >>

uste nire kasua bakarria denik, beste askori ere gertatu zaio.

Iparraldean nola ikusten duzu euskal musikaren egoera?

Zergatik bereziki Iparraldean? Ez dakit... Ez zait asko gustatzen beti zatiketa egiten egotea, bi mundu desberdin bailiran. Ni oso eroso sentitzen naiz bi aldeetan eta ez diot sekula nire buruari halako muga bat jarri, baina errealitateak oso ezberdinak dira, ez bakarrik Iparraldean; konparatzen baditugu Gipuzkoa, Bizkaia, eta Araba ere, oso egoera ezberdinak dira. Iparraldea ere bloke batean sartzen dugu, baina errealitateak oso desberdinak dira hiru herrialdeetan. Nik gero eta orokorrago begiratzen dut hori



guztia. Ni hegoaldean gehiago ibiltzen naiz iparraldean baino, eta akaso hori hobeto erantzungo luke hemen hasten den talde edo kantari batek. Egia da hemen zaila dela gauzak aurrera ateratzea, oso gogorra da. Baina ez bakarrik hemen, Nafarroan eta beste leku askotan ere bai. Hegoaldean ere talde asko daude, baina benetan jarraitzen dutenak ere ez dira asko.

Esan daiteke zuretzat musika bereziki salaketa egiteko tresna dela?

Musika berez ez da tresna, mundu bat da, artearen mundua da, sormenarena... eta hori erabili dezakezu zure kezka, edo ostia txarra ateratzeko. Ni beti definitzen naiz musikari bezala, gizarte baten zati baten parte baten moduan, eta gizadi horren inguruan ikusten ditudan gauzen salataile bat bezala. Musika izan liteke esparru bat zure salaketak egiteko, baina ez da hori bakarrik. Beste arte bat bezala izan beharko luke, edertasunaren ispilu. Nik ez dut arte hori baliatzen nire mezuak pasarazteko, gauza biak naturalki doaz batera●




bitxiak / zilarra / osagarriak

**Bilduma berriak
udazkenarako**

serafin ajuria 13-behea | gasteiz 01008 | 945222130







PERISCOPIO, PRENTSA-ARGAZKILARITZARI BEGIRADA

GASTEIZ, PRENTSA-ARGAZKILARITZAREN HIRIBURUA

Urriaren 19tik abenduaren 3ra arte Gasteiz irudiaren gune bilakatu da. Hiriko 8 puntu desberdinetan kokatu diren beste hainbeste erakusketetan mundu osoko paisaiak, pertsonak, sentimenduak, gatazkak, hondamendiak, zorigaitzak, poztasunak eta edertasunak ikusgai daude, betiere 162 erreportari grafikoren begiradaz. Hauxe dugu prentsa-argazkilaritzaren jaialdia.






'los surma'. isabel Muñoz

Lau Bazter

Jardunean dauden lau euskal erreportari grafikoen lanek osatzen dute erakusketa hau. Euren kameren bidez, El Correo-ko Nuria Gonzalez, El Pais-eko Jesus Uriarte, EFE agentziako David Aguilar eta El Mundo-ko Pablo Viñas argazkilariek gure eguneroko ingurunea erakusten digute honakoan.


Non: Montehermoso Kulturuneko Klaustroan



World Press Photo 2006

Laugarren urtez, munduko prentsa-argazkilaritzaren inguruko izen handiko lehiaketa ospetsuena dator Gasteiza. 4.400 argazkilarik baino gehiagok eta 83.044 argazkik parte hartu dute aurtengo sariketan. Oraingoan 177 sarituak ikusteko parada izango da. Bertan gosetea Afrikan, gatazka armatuen ondorioak, natura zein kirol argazki harrigarriak, eta pertsona anitzen aurpegi eta jarrera desberdinak gertutik ikusi ahal dira.

Non: Montehermoso Kulturuneko Ur Biltegi Zaharrean



'bi ume lapa do lobo (portugal) herria suntsitu zuten sugarretatik ihes egiten. 2005eko urria'

afp/ nicolas asfour

Workers

Eraskusketa harrigarria, kalitate handikoa eta ospetsua dugu Workers. Izan ere, Sebastiao Salgado dugu aurrean, munduko argazkilarik onenetarikoa. 1986 urtetik 1992ra bitartean, izen handiko argazkilarik honek 26 herrialdetatik zehar gizon-emakumeen eskulanaren esfortzua irudikatu zuen; arrantzaleek, nekazariak, industria astuneko langileak, herrialde garatuetaok zein miseria gorrian bizi diren lurraldeetakoek euren lana, aurpegia, eskuak eta begiradak erakusten dizkigute. Guztiak ikusgai zuri-beltzeko 250 argazki hunkigarritan.

Non: Vital Kutxa Fundazioaren Aretoa

La Chanca

Marina del Mar erreportari grafikoak orain dela 15 urte egin zuen honako erreportajea La Chanca izeneko Almeriako auzo marjinalan, non biztanleen gehiengoak ijitoak diren. Lanaren kalitatea ez ezik, bizi egoera latza pairatzen duten pertsona hauen baikortasuna, irribarrea eta kolorez beteriko zoriontasuna dira argazki hauen erakargarritasun nagusia.

Non: Villasuso Jauregia



'londresko metroko atentatuan bizirik ateratako bat'
edmond terakopian, erresuma batua, press association. 2005eko uztaila

Paradisua arriskuan

Merkatal interesak direla eta, natura inguruneak, eta batez ere Amazonas eskualdea, jasaten ari diren gehiegikeria irudikatzea helburu du erakusketa honetan ikusgai dagoen erreportajeak. Egilea Daniel Beltrá dugu, 1990etik aurrera Greenpeace taldeko argazkilaria dena. Bere lanak, esaterako, National Geographic, Time, Geo eta Stern bitartekoetan argitaratuak izan dira.

Non: Kordoi etxean



PACO VALDERRAMA, PERISCOPIOko zuzendaria

Nola sortu zen Periscopio garatzeko ideia?

Bi arrazoiengatik jaio zen Periscopio. Batetik, orain dela 4 urte Gasteiza datorren World Press Photo erakusketaren garapena dela esan daiteke. Erakusketa honek beti arrakasta handia lortu du hemen. Bestetik, Europako bestelako hainbat hiritan horrelako prentsa-argazkilaritzaren inguruko jaialdiak antolatzen direla badakit eta gure hirian halakoa antolatzea pentsatu nuen. Gasteiz hiri egokia da; ez da oso handia eta beraz, erakusketa asko antola daitezke, eta bestetik, ez da txikiegia ere eta badaude areto egokiak eta nahikoak. Hortik aurrera, bakarrik erakundeen laguntza lortu beharra zegoen eta egia esan, erraza izan zen, guztiek proiektuan sinetsi dutelako hasieratik.

Aldi bereko 8 erakusketa dira. Nolakoa izan da muntaia?

Alde asko hartu behar izan dira kontuan: kontaktuak, agentzia handien eta erreportari grafiko independenteen lanak libre zeuden ala ez aztertzea, ekoizpena, garraioak, aseguruak, itzulpenak, prentsa... eta batez ere,

erakusketak muntatzea, dena ondo koordinatzea eta babesleekin harremanak mantzentzea.

Periscopio jada martxan dago. Zein da bere etorkizuna?

Bikaina dela esango nuke. Gure inguruan ez dago halakorik, hots, kalitate honekin eta hainbeste gai, erreportaje, estilo eta egile ikutzen dituenik. Hainbat irudi nahiko latzak izan arren, publikoak atsegin handiz ikusten du eta memento batez, beste pertsonen azalean jartzen dira eta bestelako bizipenak eta istorioak ikusten dituzte.

Gasteizen argazkigintzarekiko zaletasuna al dago?


Uste baino gehiago... 75 taberna, jatetxe, hotel, arropa denda, okindegi eta loradendak ere lehiaketara aurkeztu diren gure 93 argazkilari amateurren lanak erakusgai dituzte euren komertzioetan. Periscopioi antolatu duen lehenengo argazki lehiaketa honetan uste genuen baino jende gehiagok eman du izena, beraz, pozik gaude eta zaletasuna badagoen seinale dela uste dut.

'Natura haserretuta'

France Presse agentzia

France Presse agentziak (AFP) mundu osoan barrena sakabanatuta dituen 90 erreportariei azken urteetan gertatu diren hondamendi naturalen irudien aukeraketa eskatu die. Sumendiak, uholdeak, lurrikarak, suteak... 140 argazki hauetan naturaren boterea ikusten da, ikaragarria bezain ederra. Suak, lurrak eta urak aurre egiten diote gizakiaren biziraupenerako grinari.

Non: Hiri Gunea Aretoa



'ama bat goseak jotako bere semearekin tahooako (niger) gosetearen aurkako larrialdi zentroan'

finbarr o'reilly, kanada, reuters

world press photo 2006-ren urteko argazkia



'petroleoaren langileak hornigailu zahar bat ixten'

gran burhan, kuwait 1991

sebastiao salgado/amazon images/contacto

'Surmak'

Isabel Muñozek Etiopiako Surma tribuaren gorputz edertasuna ikusteko gonbidapena zabaltzen digu erakusketa honetan. Herri honetako biztanleak harroak, ederrak, altuak eta lirainak dira, berezko dotoretasun naturala dute. Izan ere, euren gorputzak kolore askotako lurrekin margotzen dituzte. Isabel Muñoz argazkilari bartzelonarrak hau guztia bildu du formatu zein kalitate handiko lan honetan.

Non: Ignacio Aldekoa kultur etxea

'Diamante gaiak' Meategietatik jet set-era

Kadir Van Lohuizen holandarra dugu erreportaje honen egilea. Bere kamerarekin, harribitxi preziatuak diren diamanteen ibilbidea jarraitu du, Afrikako meategietatik emakume dirutsuen leporaino, alegia. Meategietako langile pobreak, bitxigileak, tasatzaileak eta bezero aberatsak dira protagonistak.

Non: Amarica Aretoa

cd-ak

'rose escargot' kerobia

gordiskak-06' urria | www.kerobia.com / www.gordiscos.com




pertsonaia bat, rose escargot; leku bat, isburt; bidaia bat eta hamaika istorio labur. Kontakizun arranditsurik egiteko asmorik gabe kerobiak bere disko berria aurkezte digu. Lan kontzeptual honetan, taldeak biografia unibertsala izan zitekeen fikziozko pertsonaia baten bizitzaren nondik norakoak azaldu nahi dizkigu: ihesaldi bat, haren gogoetak, erruak eta bizi-pozak, guztia lehen, bigarren eta hirugarren pertsonen kontatuak. Kontaera honen euskari gisa kerobiaren musikak instrumentazio eta moldaketa beroak eskaintzen ditu, doinu digitalei ihes egin nahian eta analogikoei eutsiz. Piano eta homud doinu nabariak, gitarra dinamikoak eta oinarri erritmiko sendoa. Laukotearen apustua ahotsari eta koruei aparteko garrantzia ematean datza, proposamen hau ederki borobilduz.

liburua

'sendabelarrak' (landareen mundua) nekane martiarena

berria-06' urria

sendabelarren mundu miresgarrian sartzeko aukera ematen dizu nekane martiarenaren liburu honek. landareen mundua ezagutzeko pauso bat duzu: 34 sendabelar aurkeztu eta bakoitzari buruz informazio zabal eta zehatzarekin batera, errezeta edo aplikazio jakin bat ematen duena, liburu honetarako propio egindako argazki ugarirekin hornituta. egokia oso zelaira edo mendira eramateko.



zinea

yo soy la juani

espainia '06 | zuz.: bigas luna. akt.: veronica etxegi, dani martin, laya marti. 90'

juani aspertuta dago beti bere mutil-lagunarekin egoteaz. Berak aktore izan nahi du, eta bere lagun batekin madrilerako joango da, aukera baten bila.

komikia

numantzia, ilunabarreko izarra

saure argitaletxea | egilea: angel benito gastañaga | itzultzailea: miel elustondo

Ka 153. urtean, Segedako Karos buruzagia Numantziara iritsi zen bere herriarekin batera Erromarengandik ihesi. Hantxe jaio zen haren alaba, Noive. Karos abuztuaren 23ko borrokaldian hil zenez gero, Noivek memento historiko ahaztezinak bizi izan zituen garaiko buruzagien gidaritzapean, hau da, Anbon eta Leukon, Litennon, Megara eta Retogenesekin.

Hiria suntsitu baino bi urte lehenago, Hannonek erromatar desertoreen eskuetatik salbatu zuen Noive. Hannon Kartagoko gladiadore izandakoa zen, eta ondo baino hobeto zekien zenbat indar zuen Erromak, hamairu urte lehenago bertatik bertara bizi izan baitzuen Kartagoren suntsipena.

Hannonek kontatu egin zien numantziarrei nola egin zen gladiadore, nola egin zen Alío zeltiberiarren adiskide hurko, biak preso zeuzkatenean, eta nola lortu zituen askatasuna eta erromatar hiritartasuna.

Noive eta Hannon ezkondu egin ziren Eszipion Emilliano Hispaniara iritsi zen garai berean.

Erromatarrek Numantzia inguratu zutenean erabaki zen zeltiberiar heroikoen geroa... Bestalde, Noivek, bere herriaz harro, duintasunez beterik egin zion aurre, bakar-bakarrik, azken finari.



MAXWELL JAUNAREN SAGUTXOA

[txabi arnal gil]

Maxwell jauna pozik dago. Lanean maila-igoera eman diote, eta ospatu nahian hiriko jatetxe baterantz abiatu da janari on bat dastatzeko asmoz. Maxwell jauna ohitura aldaezinetako katua da, baina, gaurko eguna berezia izanik, betikoa eskatu beharrean sagutxo bizidun bat ekar diezaiola eskatu dio *maître*ri. Hemendik aurrera katuak eta sagutxoak, aurrez aurre, ezohiko lehiaketa bat protagonizatuko dute.

Katu gizatartuen munduan gaude, goi mailako mundu batean, maila handieneko jatetxe batean, ironia handiko ipuin baten aurrean.

Katuaren eta sagutxoaren arteko elkarrizketak istorioa bideratuko du, bi mundu, erabat kontrakoak, aurrez aurre ipiniko dituelarik; lehenengoa katuen, Maxwell jauna bezain iluna, bigarrena sagutxoena, Maxwellen janaria bezain garbia. Katuak ez ditu inoiz jokamolde finak galduko, sagutxoa, berriz, edozein aitzakiaz baliatuko da katuaren atzaparretatik alde egiteko.

Liburu dotore baten aurrean gaude, euskarri dotorekoa, Maxwell katuarekin eta horren inguruarekin bat datorrena.

Ipuin iluna dugu esku artean. Hala ere, sagutxoaren azkartasunak argi handiko distirak zabalduko ditu nonahi.

Irudi bikainetako liburua dugu hau; errealista, marrari garrantzi handia ematen diona, detaileak muturreraino zaintzen dituen, idatzia ezin hobeki laguntzen duena.


Ipuin bat eta bi mundu: menperatzailea eta menperatua. Eta sagutxo azkar bat, menperatzaileen flematikotasunari esker askatasunera hurbilduko dena●

El Ratón de señor Maxwell. Frank Asch-Devin asch. Juventud Argitaletxea, 2004



MAURO ENTRIALGO, guztiaren gaineratik ISTORIO-KONTALARIA

Mauro Entrialgoren (Gasteiz, 1965) izen-abizenak zerbaitekin lotu behar izanez gero TMEO komiki arabarraren argitalpenarekin da. Bertan marrazkilariak Herminio Bolaextraren istoriotxoak kontatzen ditu, ironiaz, zirikatzaile eta egungo gizarteari kritika gordina eginez. Baina hala eta guztiz ere, hau ez da Madrilen bizi den gasteiztar honek egin duen bakarra. Bere ibilbidean marrazkiak egiteaz gain, bideoak zuzendu, musika taldean abestu eta antzezlan eta zine filmetarako gidoiak ere egin izan ditu.



[josune veleaz de mendizabal]

[arg.: edorta sanz]

Batetik, Herminio Bolaextraren edizio berezia aurkeztera (pertsonaiaren aurreko bi libururen bilduma) eta, bestetik, 'Trocitos de mi vida' izeneko bideo emanaldia eskaintzera etorri zen iragan urrian Mauro Entrialgo Gasteiza. Orain arteko lana laburbiltzea ordea, ez da kontu erraza. Maurok argitalpen propio ugari kaleratzeaz gain, kolaborazio mordoak egin baititu aldizkari eta egunkarietan (egun, esaterako, 7ka gehigarrian kolaboratzen du).

Bere zaletasunen artean, Gasteiza lehenengoz bueltatu denarekin, etxeko bideoak egitea dugu. "Sei urte daramatzat bideo kameraz zenbait irudi hartzen, nire etxeko leihotik, nire senideen ezkontzan, lagunena, eguneroko pasarteena... -aipatu du-. Istorioak kontatu

nahi nituen baina oraingo honetan nire burmuinean dauden oroitzapenen aukeraketa baten bitartez egin beharrean, grabaturiko ordu mordoetako zintetako materiala hautatzen egin dut; honek ez baitu gezurrik esaten".

Kamera, Fundación Rodríguez Fundazioak 2000 urtean eginiko lehiaketaren saria izan zen. 'Trocitos de mi vida' izenarekin izendatu du Maurok bere bizitzako pasarte ezberdinak batzen dituen ikus-entzunezkoa. "Lehenik eta behin jendea ez dadin aspertu, zati arinak eta dibertigarriak sailkatu ditut. Jendeak ondo pasa dezala da helburuetako bat. Bigarren irakurketa egiten ez badute ere berdin dio", aitortzen du. Lerro artean irakurriz gero Maurok ondorioztatzen duena zera da: "Bestelako tokietan lekurik ez duena da gaur egun artetzat jotzen dena".

“Nire istorio propioak kontatzeko ikasi nuen marrazten”

Komikigintzan aritzeaz gain, zinemarako gidoiak eta antzezlanak ere idatzi dituzu, bideoak grabatzen ere zaletu zara eta musika talde bat duzu. Artista anitza zara oso...

Beno, nik beti nabarmentzen dudana da modu batez zein bestez egiten dudana istorioak kontatzea dela. Baina argi dago denetarik ezin dudala egin..., interpretatu aktore moduan ezin izango nuke egin, adibidez...

Denetarik ezin duzula egin diozu baina zure istorioen kontaketa ez da soilik murrizten marrazketari, arlo gehiagotan jorratzen baituzu zaletasun hori. Zein duzu horietatik guztietatik gustukoena?

Marraztea dut gustukoena. Idazten ikasi baino lehenago amak komikiak irakurtzen zizkidan eta aitak, igandeko aste-saria eman beharrean, El Globora (Gasteizko betiko liburudenda non tebeoak saltzen diren) eramaten gintuen anai-arrebok. Izan ere, nire istorio propioak kontatzeko ikasi nuen marrazten. Ez nuen ondo marrazten baina tematu nintzen horretan.

Eta zeintzuk ziren txikitan zure komiki faboritoak?

Denetarik irakurtzen nuen..., TBEO asko baina baita Popeye, Carlitos, Asterix, Tintin..., bai eta Superheroien baten bat ere.

Zein izan zen zure lehen lana komikigintzan?

Zein, ordainduta edo ordaindu gabekoa? (barre egiten du)... 13 urte nituenean Vibora-ra bidali nituen marrazki batzuk eta garai hartako arduraduna zenak fanzine bat egin nezala aholkatu zidan. Geroxeago hori zer zen azaldu behar izan zidan, ideiarik ez bainuen. Hala egin nuen zuri-

beltzeko fotokopietan. Nire lehen argitalpena, ordea, 1982an izan zen, Makokiren lehen garaian. Ah, itxoin, hori baino lehen Zapako (Gasteiz) taberna bat nire marrazkiekin margotzeagatik ordainsaria eman zidaten. Bar Perez izenekoa zen, gaur egungo Parnaso taberna dena.

Zure pertsonaien artean zein duzu kuttunena? Baldin eta baduzu... Herminio Bolaextrak 20 urte daramatza zurekin...

Egia esateko, garaiazen araberrako kontua da hau. Herminiok adibidez 20 urte ditu... Euskal Herrian komikien arteko nahaste bat egitea erabaki zutenean sortu zen TMEO, eta horrekin batera pertsonaia hau. Argitalpen honetan zenbait lagunen astakeriak, txisteak eta esaldiak bildu genituen. Ni orduan Arte Ederrak ikasten ari nintzen, baita komiki poetikoagoa lantzen ere. Koña apurra zeukan komiki honek baina jendeak gogorazten dit erabat serio egiten nuela... Orduan hasi nintzen Herminiorekin eta gaur arte! Gustuko izan dut, baita alderantziz ere. Algel Sefijarekin ari naizenean ordea, bera da gehien gustatzen zaidan pertsonaia edota Garan, duela urtebete, hasi behar nintzela esan zidatenean orduan emozionatu nintzen horrekin; pastela egitearekin poz-pozik nengoen... Hortaz, egin ahala.

Azken aipamen honen harira. Garan egiten duzunak zerikusirik ez du TMEOn egiten duzunarekin. Arraroa baldin eta zure pertsonaien izaerari begiratzen badiogu...

Beno bai, Zazpikako gehigarrian umore zuria lantzen dut, edonork irakurtzeko komiki mota behar zuen izan.

BINETATIK ANTZEZLANERA

Fat Esteban eta Esteban Light bere taldeekin diskografia oparoa izateaz gain, Mauro Entrialgok zinemarako eta antzerkirako idatzi egin du. Zineman, 'Gente pez'. "Hasierako gidoia nirea zen baina gero aldaketa pilo-piloa egin zituzten; gatza duena nirea da", dio umoretsu. Antzerkirako, berriz, Eloi Beatorekin batera Sobradun konpainiarentzat 'Herminio y Miguelito', '30 millones de gilipollas' eta 'No hay huevos' egin zituen; baita 'Se empieza por los porros' ere, Santi Oruerekin elkarlanean Tres tristes tigres taldearentzat. "Denak enkarguz izan ziren eta ordutik ez didatenez deitu ba ez ditut gehiago egin", aitortzen du.



ARGITALPEN ESANGURATSUENAK

La pandilla galáctica, Herminio Bolaextra, Tyrex, El Demonio rojo, El efecto solomillo, Alter rollo-Tomo 1, Alter rollo-Tomo 2, La Escalera, Recortes de hostias, Siempre en forma, Déjà vu, Hablando en plata, Drugos el acumulador, Lo mejor de Ángel Sefija, Curiosidades del mundo del rock & roll, Ángel Sefija en la cosa más nimia, Cómo convertirse en un hijo de puta eta Historietas a la carta, besteak beste.

www.mauroentrialgo.com

KARAKORUM ESPEDIZIOA 2006, arabarrak gailurretan

Ekainaren 24an Gasteiztik Islamabad-era abiatu ziren lau mendizale arabar, Alberto Zerain, Iosu Alcaraz, Xabier Alzola eta Iñaki Galilea, hain zuzen. Buruan proiektu argi bat, Pakistango mendizerran kokatutako Gasherbrum I edo Hidden Peak (8.068 m) eta Gasherbrum II (8.035 m) gailurrak lortzea.

[maite lekue]

[arg.: arabako espedizioa & edorta sanz]

Aurten, gainera, 50 urte betetzen dira GIL tontorra lehen aldiz zapaldu zutenetik, eta horrek mendizale euskaldun ugari bultzatu ditu abentura hau aurrera eramatera. Hala ere, Alberto Zerain eta Xabier Alzola gasteiztarrek erronka bikoitzari aurre egin zioten, aste baten buruan bi gailurrak egitea erdietsi baitzuten; GILaz gain, orain dela bi urte zapaldu gabeko Hidden Peak edo GI gailurra ere menperatu zuten. Aipagarria ere bada GI tontorra egiteko 2. kanpamentutik abiatu zirela, 6.500 metroan, eta ez zutela 3. edo 4. kanpamenturik ezarri. Horrela 13 orduko igoera eta 1.600 metroko desnibela gainditu behar izan zituzten, ohikoa ez den altuera baxutik mendiaren gailurra eginez.

Mendizaleen proiektua

Mendiaren munduan ezagutza garatzeko eta mendizaleen grinari men eginez, 2006 urterako munduko bi goi gailurretara abiatzeko espedizio bat antolatzea otu zitzairen lau espedizio-kideei. 1956. urtean austriarrek irekitako jatorrizko bide beretik igoera egin nahi izan zuten. Egindako espedizioa "espedizio garbia" izenez ezaguna da, hots, gailurrera heltzea bezain garrantzitsua dela bidean sortutako zaborrak etxeratzea. Une oro mendiari eta inguruneari dieten begirunea eskainiz

eta lekua zegoen bezala uzteko konpromisoa hartuz abiatu ziren gasteiztarrek.

Historia apur bat

Gasherbrum tontorren taldea Baltoroko sorburuan kokatzen da, K2 menditik oso gertu. Bere izena, 'Grasa brum', baltiar hizkuntzatik dator eta mendi ederra, batzuen ustez, edo horma argitsua, besteren ustez, esan nahi du. 1956. urtean Austriako

Himalaya elkarteak Karakorum-erako espedizio bat abiatu zuen eta Gasherbrum ikuskatu eta gero gailurra egitea pentsatu zuten eta baita lortu ere. Austriarrek bideratutako espedizio honetan mendiak igotzeko modu berri bati bide eman zitzaion; lehendabiziko aldiz, igoeran gaua ematea jasotzen zen planaren barruan. Dena den, hamarkadak behar izan ziren hau ohitura bilakatu arte.





goian Iñaki Galilea 'nano', behean xabier alzola eta alberto zerain espedizio garaian



Xabier Alzola, arabako espedizioan parte hartu duen kide gazteenarekin solasean

Zein izan da bi gailur (GI eta GII) espedizio berean lortu nahi izatearen arrazoia?

Guk mendi lasterketak egiten ditugu, korrika ibiltzen gara mendian zehar. Adibidez, Zegamako maratoian parte hartzen dugu eta munduko koparako puntuagarria izaten da frogak hau. Espedizio honetan gure bizkortasuna praktikan jarri nahi genuen, mendian gure indarra neurtu nahi genuen, eta ikusi genuen gauza ginela aste batean bi tontorrak gailentzeko.

Zuk gailurrera igotzean Iñaki Galilea, Nano-ri eskaini zenion lorpen hau? Zer dela eta?

Nire lehen espedizioa izan da 8.000 metroko mendietara eta Nanok dena eman du proiektu honetan. Nire kasuan bereziki asko lagundu dit, bai espedizio hau aurrera ateratzeko momentuan, bai ni neu bertara joan nendin saiatzeko ahaleginetan. Une oro izan nuen buruan GI lortuz gero berarentzat izango zela tontorra. Gainera gogoratu egin behar da berak ibiltzeko zailtasunak dituela, tetraplegikoa izan da eta mirari bat da gaur egun bera ibiltzea. Hala ere oinarritzko kanpalekura iritsi zen (5.200 m).

Machulon Felix Iñurrategi Fundazioan izan zineten. Zer aurkitu zenuten bertan?

Euskal Herrian dauden etxeen moduko eraikina da eta udara partean turistentzako ostatu bilakatzen da, jan zein lo egiteko. Honetaz aparte, altuerako haxelariantzat



materiala alokatzen da, haien lana profesionaltasunez zein baldintza onetan egin dezaten saiatzeko. Neguan aldiz, bertako jendeari prestakuntza saioak emateko erabiltzen da, baita herriko jendea biltzeko ere.

Zein da halako espedizio batean ezinbestean eraman beharreko ekipamendua?

Buff, gauza piloa. Pirinioetara neguan joateko erabiliko zenukeen ekipamendu berbera baina material hobeeekin egindakoa. Tontorrean ibili ginen egunean lumazko jantzibakar bat generaman, baina benetan garrantzitsuena burua ondo prestatuta eta kokatua izatea da.

Zer da faltan gehien bota zenuena espedizioak iraun zuen denboran?

Lagunak, koadrila... (kar-kar!)●

ESPEDIZIO-KIDEEI BURUZ ZERTXOBAIT

Alberto Zerain Berasategi:
Gasteizen jaioa 1961. urtean. Everest mendira igotzea lortu zuen lehenengo arabarra izan zen eta bost zortzimilako ditu bere gain. Besteak beste, Lotse (zortzimilako bat da, Makalu bezala), Peruko mendiak eta GI (8.068 m) eta GII (8.035m) gailurrak eginak ditu.

Iosu Alcaraz Ortiz:
Gasteizen 1956. urtean jaioa. Peruko mendiak, Aconcagua (6.959 m) eta McKinley (6.193 m) ditu lortutako gailurrak.

Xabier Alzola Beltran de Heredia:
Gasteiztarra da eta 32 urte ditu. Oraingoan, Aconcagua (6.959 m), McKinley eta GI (8.068m) eta GII (8.035m) bere gain ditu.

Iñaki Galilea Bidaurreta:
Gasteiztarra dugu eta 1967. urtean jaio zen. Euskal Herriko zein Pirinioetako mendiak aski ezagutzen ditu eta Karakorum-erako espedizioan parte hartu zuen.

Informazio gehiago nahi izanez gero haxe da espedizio-kideen webgunea:
www.arabakoespedizioa.com

13 GASTEIZTAR AUZITEGI NAZIONALEAN...

Datozen abenduaren 4an eta 5ean Espainiako Auzitegi Nazionalean Gasteizko 13 gazte epaituko dituzte. Guardia Zibilak 2001eko abuztuaren 26an hasiera eman, eta 2002ko uztailera arte iraun zuen sarekadaren inguruan irekitako 15/02 sumarioari buruzko epaiketa izango da. Operazio horretan ia hogeitaz lagun atxilotu zituzten, guztiak inkomunikatuta egon ziren, eta beste bederatzi lagunek epailearen aurrean deklaratu behar izan zuten.

[edurne begiristain]

[arg.: edorta sanz]

Auzi horretan epaituko dituzten 13 gazte gasteiztarrek torturak salatu zituzten Guardia Zibilaren esku inkomunikatuta egondako egunetan. Polizia deklarazio guztiak torturapean lortu ziren, eta haiek ontzat hartu eta froga moduan erantsi dituzte sumarioan. ETAko kideak izatea edo erakunde armatuari laguntza ematea leporatzen diete gazteei, eta guztiei seina urteko espetxe zigorra eskatzen diete.

Gazte horien artean Unai Romano eta Juan Carlos Subijana Txanpi-ren kasuak izan ziren ezagunenak, biek jasandako torturen irudiak publiko egin baitziren bere garaian. Argazki horiek Espainian "torturaren erabilera sistematikoa" egiten dela erakusten dute, auzipetuen ustez.

Epaiketa horren aurrean ugariak izango dira hilabete honetan eta hurrengoan izango diren ekimenak, sortu berri den Torturatuen eta senideen Asanbleak antolatuta. Batetik, auzipetuek eragile sozial eta politikoekin harremanetan daude, elkartasuna eta babesa lortu aldera.

Erakundeetan ere ekimenak aurkeztu dituzte, besteak beste, Eusko Legebiltzarrean, eta Gasteiz eta Araiako Udaletan. Erakundeei zein eragile sozial eta politikoei torturaren aurkako eta epaiketari elkartasuna adierazteko egindako manifestuari atxikimenduak ari dira eskatzen asanbleakoak.

Halaber, manifestazioa antolatu dute Gasteizen, abendurako (lerrook idazteko orduan data zehatza zehazteke zegoen orandik). Epaiketa hasten den egunerako, berriz, elkartasun autobusa antolatu dute Gasteiztik Auzitegi Nazionalera. Eta, horrekin batera, hilabete honetan hitzaldiak, antzerki saioak eta bideo emanaldiak ere antolatu dituzte. Den-dena, helburu argi batekin: epaiketa salatzea eta bertan

behera uztea eskatzea, Espainiako Estatuan tortura sistematikoki erabiltzen dela gaitzestea eta Auzitegi Nazionalaren desagerpena aldarrikatzea.

Honakoak dira Auzitegi Nazionalean epaituko dituzten gazteak:

Daniel Gutierrez
Jose Ramon Acedo
Jon Etxeberria
Sendoa Dominguez
Iban Saez de Jauregi
Raul Vallinas
Unai Romano

Aitor Duran
Jokin Zerain
Juan Antonio Cortes
Susana Atxaerandio
Zigor Bravo
Enrike Urarte

www.stoptortura.com

TORTURARI STOP!



UNAI ROMANO,
torturatu eta auzipetuetako bat:

*“Sumario guztia
torturapean eginda dago”*

salatu zenuten. Epaiketa horren funtsa zalantzan jartzen dela esan daiteke, beraz?

Inputatuak gauden 13 gasteiztarrok torturak salatu ditugu. Torturapean lortutako deklarazioen ostean atxiloketak etorri ziren, bata bestearen atzetik: atxiloketa bat, torturak, torturapean egindako deklarazioetan beste izen batzuk eman, eta horrela soka guztia. Oinarri guztia torturapean dago, sumario guztia torturapean eginda dago.

Sarekada horretan atxilotu eta bortizki torturatua izan zinenetako bat zara, kasu ezagunena, dudarik gabe. Baina, aurtengo otsailean Madrilgo Probintzia Auzitegiak jarritako salaketaren artxiboa berretsi zuen. Nola dago zure kasua? Europara jotzeko asmoa duzu?

Espainiako bide judizialak agortzen direnean, Europara joko dugu. Helegitea jarri dugu Auzitegi Gorenean, eta horren erantzunaren zain gaude. Artxibatuko balu, Estrasburgora joko genuke. Espainian ez dut uste jaramon handirik egingo diotenik nire kasuari, ez baita onartzen torturatzen denik. European itxaropen pixka bat gehiago daukagu.

Bost urte pasa dira gertaera haiek jazo zirenetik. Nola zaude egun?

Amorrua sentitzen dut, eta gainera duela gutxi komentatu didate Guardia Zibilak nire aurka jarritako salaketak aurrera doala. Guardia Zibilak lau delitu leporatzen dizkit: denuntzia faltsua, lekukotza faltsua, mediku dokumentuak faltsutzea eta erakunde armatuari laguntzea. Hortaz, amorrua badaukat, eta gogoia ere hau guztia amaitu dadin behingoz.

Zuk uste duzu tortura salaketen aurrean poliziaren bertsioak sinesgarritasuna duela gizartean?

Euskal Herrian ez dut uste ez zilegitasunik eta ez sinesgarritasunik duenik poliziaren bertsioak, baina akaso Espainian bai.

Beste auzipetuengan zer-nolako jarrera sumatu duzu epaiketari begira?

Denetarik dago. Hamahiru gara, eta nahasketa bat egin dute Auzitegi Nazionalean. Pentsa guztioi 6 urteko espetxe zigorra eskatzen digutela, batzuek beste auzi batzuk dituzte, batzuen aurka ustez dituzte, beste batzuen aurka ez, autoinkulpazioak daude,... Nahaste berrastea dago, eta ez da oso ulergarria guztiei zigor eskaera bera jartzea. Batzuk baikor gaude, egoerak lagundu dezakeelako, baina denetarik dago. Gehienok espero dugu ongi ateratzea●

Zein balorazio egiten duzu abenduko epaiketaren inguruan?

ETAren su-etenaren ostean Euskal Herrian irekitako egoera ikusita, apur bat baikorragoa naiz. Su-etenaren ostean irekitako abagunearen ondoren gauzak apur bat hobeto ikusten ditut. Hala ere, ezin gara fidatu Auzitegi Nazionalarekin, eta ez dakigu zehazki zer gertatuko den.

Auziperatutako guztiei deklarazioak torturapean hartu zizkizuetela

KIKE AMONARRIZ,

Mihiluze saioko zuzendari eta gidaria

“Euskarari ahalik eta zuku gehien atera nahi diogu”

ETB1eko saio arrakastatsuen zuzendari eta gidarietako bat da. Kike Amonarriz (Tolosa, 1961) pozik dago Mihiluze programak jendearen aldetik lortutako erantzunarekin. Umorearen bidez, hizkuntzaren baliabideekin jolasten dira egunero Mihiluzen, eta euskarari ahalik eta “zuku” gehien ateratzen saiatzen dira.

[edurne begiristain]

[arg.: mihiluze]

Jolasa, umorea eta hizkuntza nahasten dituzue Mihiluzen. Hiru elementu horien uztarketan datza saioaren arrakasta, ala zerbait gehiago da?

Askotan telebistan arrakasta zerk izan dezakeen asmatzea ez da erraza.

Nik uste dut intentzio bat erantsi nahi izan diogula programari, eta intentzio horrek baditu alderdi diferente batzuk: batetik, barrutik egin nahi izan dugu, eta gure hizkuntza komunitatetik pentsatutako lehiaketa bat egin dugu. Eta horretarako hizkuntza eta umorea uztartu ditugu. Nik uste gertuko lehiaketa bat egin nahi izan dugula, dinamikoa, umoretsua eta aldi berean, gure errealitatearekin bat egiten duena. Hizkuntzaren alderdi ludikoak nabarmendu nahi izan ditugu, erakutsi nahi baitugu euskararekin jolas egin daitekeela, jolas egiteko modu oso diferenteak egon daitezkeela, eta gero hori guztia modu atsegin batean egiten saiatzen gara. Eta horrekin batera guretzat klabea izan da lehiaketaren zati guztietan etxetik jolastu ahal dela.

Mihiluze saioaren formatua berria da? ETBk asmatu du ala nonbaitetik hartu duzue ideia?

Formatua lan-taldean asmatutakoa da, kanpoan zer dagoen begiratu dugu, eta zati batzuk egokitu ditugu. Esaterako, galderena formatu unibertsala da, baina gure saioari eman nahi genion erritmoa ikusita, egokitu egin dugu gurera. Eta, era berean, badira formatu batzuk guk geuk asmatutakoak direnak: Esamesen proba, Potokumeena, eta Zer da zer frogia. Espero dezagun norbaitek kopiatzea, kar kar!

Saioa aurkezteko proposamena nola heldu zitzaizun?

Orio produktorak deitu zidan produktu bat lantzen hasteko. Egitasmoa lantzen hasi nintzenean, gazte hizkeraren inguruan Antxon Olariaga eta Asisko Urmenetarekin argitaratutako liburuxkan jasota zeuden ideia batzuk hartu nituen. Nire helburua izan zen programan batez ere hizkuntzaren alderdi ludikoak nabarmentzea eta euskararekin jolas egiteko moduak gizarteratzea. Horrekin egin genuen proiektu bat, telebistan aurkeztu genuen eta ontzat eman zuten, eta hortik iazko programa atera zen. Iazkoak ongi funtzionatu zuen baina hura amaituta, telebistatik adierazi ziguten interesatzen zitzaizela batez ere eguneroko saioa egitea, ordu erdikoa. Hortaz, egin behar izan duguna izan da iazko formatua egokitu. Egokipen horretatik sortu da aurtengo Mihiluze lehiaketa, eta oso sorpresa pozgarria izan da lortzen ari garen onarpena eta arrakasta. Lehiakideen zein ikusleen aldetik jasotzen ari garen erantzun ona ere nabarmentzekoa da, feedback handia daukagu, eta jendeak material asko bidaltzen digu. Guretzat hori oso aberasgarria da eta lanerako akuilu izugarria da.

Audientzia datuek asko kezkatzen zaituztete?

Beno, garrantzi handia eman behar

diegu, programen jarraipena ere
audientzien baitan dagoelako. Batez
ere, prime time orduan. Gurea
bezalako saio batek ez luke zentzu
handirik izango ikuslerik ez balu,
edo ikusle
gutxi
balu.

Orduan, gure erronka nagusia hori
da, ahalik eta produkturik onena
eta kalitatezkoena egitea eta ahalik
eta jende gehienera iristea. Eta
gainera iruditzen zait erronka
bainoago, premia gorria dugula,
erakarri behar dugulako jendea
gurera eta lortu behar dugulako
jendeak euskarazko produktuak
kontsumitzea, euskarazko produktuak
entzutea eta ikustea.

**Saio drogosoan egin nahi zenutela
esan zenuten hasieran. Lortu
duzue?**

Nik uste baietz. Egia da ongi
pasatzen dugula, grabazioetan,
lehiakideekin... eta sumatzen
dugu hona etorri den jendeak
ongi pasatzen duela, giro
atseginean ikusi duela
bere burua, eta hori
bada zerbaiten sei-
nale. Gu saiatzen
gara giro drogoso
hori mantentzen
eta ahal dela
behintzat pan-
tailatik tras-
mititzen.

di-da

Eguna ala gaua? **Gaua.**

Telebista ala irratia? **Telebista.**

Telebista saio bat? **Wazemank, Martin eta
Balbemendi.**

Irrati saio bat? **Gutxi entzuten dut... ez
dakit.**

Musika talderik? **Peiremans.**

Biziorik? **Asko, ahalik eta gehien.**

Baten bat aipatzeko? **Bizioa.**

Bertuterik? **Egoskorkeria.**

Barre egin duzun azken aldia? **Atzo,
grabaketan.**

Eta negar? **Askotan egiten dut. Sentibera
naiz eta duela gutxi lagun baten
heriotzan.**

**Umorea lantzeaz gain, ikusten da
hizkuntza-ren ahozko-tasunarekin
eta trasmi-sioarekin lan egiten
saiatzen zaretela. Hitz batean,
hizkuntza zaintzen duzuela.**

Bueno ez dakit zaintzea den hitza,
baina behintzat gure helburua bada
hizkuntzarekin jolastea. Euskarari
ahalik eta ahalmen edo zuku gehien
atera nahi diogu. Kolore desberdinak
erakutsi nahi ditugu, eta euskaldu
berri batek, esaterako, ere gozatu
dezan, eta ikus dezan zenbat aukera
dauden, eta hizkuntza ez dela
bakarrik boligrafo gorria, eskola
eta EGA.

**ETB1en hizkuntzaren alorrean lan
gehiago egin beharko litzatekeela
uste duzu?**

Bolada honetan badago barne
hausnarketa bat, eta uste dut bide
bat jorratzen hasi dela eta azken
bolada honetako produkzioetan
ere aldaketa sumatzen hasi dela.
Hala ere, iruditzen zait oraindik ere
euskarazko kultur kontsumoaren
inguruan hausnarketa sakona egin
behar dela, bai ETBn eta baita
euskal kultur produkzioan ere●

**BIKOTEAK BEHAR DIRA MIHILUZE SAIORAKO. INTERESA IZATEKOTAN, BI BIDE
DAUDE: MIHILUZE@EITB.COM EDOTA 943011780 TELEFONORA DEITUZ**



lisboa kuya

ensina-me a ser assim
capaz de fazer dum "yah"
algo mais do que um sim
ninar tudo o que pede p'ra ser já
e deixar aconchegar-se a mim
a certeza de que nada mais terá
o mesmo sabor
nem cerejas
nem lisboa

(sara tavares)



ERREZETA

HEGALLUZE-ZATI GORENA PANADERA PATATEKIN, TOMATE KONFITATUAREKIN ETA MODENAKO OZPINAREKIN

[diocesanas-mendizorrotzako ostalaritza eskola]

> OSAGAIAK:

- | | |
|------------------|--------------------|
| -Hegaluzea | -Patatak |
| -Tipula | -Oliba olio |
| -Gatza | -Baratzuria |
| -Perrexila | -Haragi zukua |
| -Modenako ozpina | -Tomate konfitatua |




Prestakuntza

-Hegaluzea garbituko dugu, eta lau solomo aterako ditugu; mendreska gorde egingo dugu, hurrengo baterako. Garrantzi handia du plater hau egiten hasi aurretik "odol sareak" deritzenak kentzeak: hezurretik gertuen dauden zatirik ilunenak dira, eta kentzea komeni da, beroaren eraginez bertako odola "histaminatan" deskonposatzen delako eta alergiak eragin ditzakeelako. Solomo bakoitza film paperarekin bilduko dugu, eta hozkailuan utziko dugu, erabili behar dugunera arte.

-Patatak zuritu eta forma zilindrikoa emanez zatitu, eta ondoren, 3mm-ko orrietan moztu; ur hotzetan garbitu, almidoi pixka bat kentzeko. Tipula juliana eran moztu, eta panadera patatak egiteko erabiliko dugun ontzi berean, oliba olio pixka batekin, poliki-poliki egin. Tipula eginda dagoenean, patatak erantsiko dizkiogu, eta su biziagoan egingo ditugu; gatza-piperrez ondu, eta ontzian laberako paperarekin estali. 180 °C-ra labeaz erre, 40 minutuan. Punta batekin eginda dauden ikusi, eta berotan gorde.

-Hegaluze-solomo bat zeharka moztuko dugu, eta gatza eman ondoren, zartagin batean su bizitan egingo dugu, baratxuri eta perrexil pixka batekin, alde batetik eta bestetik arin samar eginez, barrutik heze gera dadin; atera arraina, eta desglasatu modenako ozpinarekin, zukuari loditzen utzi eta burruntzalikada bat haragi salda erantsi; berriro ere loditzen utzi, eta iragazi.

-Platera amaitzeko, tomate konfitatuaren purearekin koroa moduko bat egingo dugu, eta erdi-erdian ohea egingo dugu panadera patatekin, inguruan saltsa duela, gaineaz arraina ezartzeko.



[cristina fernandez blanco]



Gasteizko tranbiak eragindako hiri-paisaia

HISTORIAZUTABEA

IRATXEREN ARTIKULUAZ

[erlantz urtasun]

Kaixo, irakurle. Han hemenka irakurri ahal izan dut Iratxe Esnaola Arribillagaren artikulua bat. Udan izan da. Antza, uda partean ez da gauza handirik irakurtzen prentsa idatzian, Gasteizen hagitzez egunkari gutiago saltzen da, baina Iratxerena arreta handiz irakurri nuen. Are gehiago, urrian gure Geu maitagarrian azaldu zen, udakoaren oroitarazteko.

Bada, eni artikulua ederra iruditzu zitzaidan, freskotasan handikoa. Halere, berriz ere senditu nuen euskal naziogintzak pairatzen duen hutsunerik. Izan ere, Euskal Herriaren eremu handi batean euskararen ezagutza nahikoa bermaturik dago eta, horren ondorioz, Iratxeren "Euskararen lurraldea Interneteko mapan" moduko artikulua logikoak direla dirudi, hots, Euskal Herria Interneten ere zabaltzea, jauzia ematea, bertze hainbat esparruren geureganatzea. Edota Iruñeko aitatzari batek duela hamar

bat urte erran zidana: "En pocos años tendrá que haber una Euskal Herria digital o no habrá Euskal Herria". Ados.

Baina eta hemen, egun Euskal Herria digitalaren erdiestea Euskal Herria bera ere izaitea baino errazagoa dugu. Ikusi, bertzerik ez dago, Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa, Nafarroa Garaia edota Arabako eremu handiengan bizi dugun egoera. Eta, zilegi bekit erraitea, premiazkoagoa dut Iratxe moduko gazteek erdaldunduriko Euskal Herriaren berreuskalduntzea, ADSLn euskara pila kausitzea baino.

Alta, zaharra nauzue, umea nintzen German erail zutela sanferminetan. Haatik, duela bi mila urteko Arabako Iruñako biztanleak gai ziren euskaraz idazteko. Egungoak, nagusiki, ez. Ez eta euskal hiriburua dugun nafar Iruñean ere. Irudikatzen ahal duzue ingelesik gabeko Liverpool, alemanierarik gabeko Berlin? Zein da lehentasuna euskaldunondako?



"ARABAKO HERRI IZENAK ALDATU DIRA HISTORIAN ZEHAR?" (VII)

Aurrekoan "Ollabarre" eta "Onraitia" utzi genuen zintzilik. Duela mila urteko paper zaharren arabera, "Ollabarre" hura "Ollabarni" zen. Antzekoa XIII edota XVI. mendean.

Bertzea, berriz, "Onraitia" delakoa, korapilatsuagoa dugu historian barna. "Erohetia" genuen 1025. urtean, eta "Honraitia" XIII. mendean. XVI. mendean "Honrreya" idatzi zuten. Baina, kasu, zeren eta XVII. mendean notarioak, eskribauak, enfin... 1624: "Onraeta". 1627: "Onrraitegui". 1640: "Ondraitia". Hitz batez, barra libre. Auskalo bertakoek nola deitzen zioten!

Amai dezagun, hor dugu Opakua ospetsua, komunikabideetan elurteak medio agertzen dena, duela milurte bat "Opauca" idatzi egin zutena, baita "Opauqua" ere, 1258. urtean.

Hurrengoan artxibategiko agirietaiko "Oquendo" alderat joko dugu, irakurle. Agur beroa.

txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera duzue, bidali hona zure galdera: geugaste@gm.es

18/98+

Kontzertua 11/11 BEC Barakaldo

FERMIN MUGURUZA

EUSKAL HERRIA JAMAICA CLASH

dam (ARAB HIPHOP)
(PALESTINA)

Bad Sound System

La Banda del Surdo (HOSKU-IRUN)
(BATUCADA-CAT)

20:00

Sarrera: 18,98+ €

(+ Aurre salmentako gastuak)

www.ticketticket.com

Takilan: 23,98 €

berria

Herri Irratia

garac

DEIA

info7

Diario

Gipuzkoa

Itika

Euskal Herriko II. Ikus-entzunezkoen Rallia




Aiaraldean, 2006ko
abenduaren 16an

Onariak: www.topagunea.org/Rallia

izen-ematea:

azarOaren 27ra arte

Antolatzaileak:



Babesleak:



ZENTRO

BERRIA

ZENTROAN

bai&by

GASTEIZKO ZENTRUAN bai&by ZENTRU BERRI BAT

ADIMENDUN SISTEMA BAKARRA · INGELESA & EUSKARA DIRUZ LAGUNDUAK
ZERBITZU BERRIAK: INTERNET 24 ORDUZ · ON LINE AHOLKULARITZA · TELEFONO-ESKOLAK...

bai&by **-ko IKASLEA BAZARA, INFORMA ZAITEZ ZENTRO BERRIAN,**

...ETA ORAINDIK EZ BAZARA, ZEREN ZAIN ZAUDE??? 945 15 71 10. K/ ADRIANO VI, 12. GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa